

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (UPV-EHU)

Zenbatzaile lausoen komunztadura- aldakortasuna Iparraldeko euskaran

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Eukene Franco Landa

Zuzendaria: Myriam Uribe-Etxebarria

2018-2019 ikasturtea



Euskal Ikasketak
Hizkuntzalaritza eta Euskal
Ikasketak Saila

Laburpena¹

Lan honek euskararen zenbatzaile ahul lausoen² komunztadura-aldakortasuna aztertzea du helburu nagusia. Zehazkiago, zenbatzaile hauek erakusten duten gaitasuna aditz jokatuan zenbaki-komunztadura plurala eragiteko edo bat ere komunztadurarik ez eragiteko.

(1) a. Hainbat neskatxa portura abiatu ziren.

b. Hainbat neskatxa portura abiatu zen.

Lana bi atal nagusitan egituratuta dago. Lehen atalean fenomenoaren nondik norakoak laburbilduko ditugu eta fenomenoaz azaltzeko proposatu diren lan teoriko nagusiak aurkeztuko ditugu. Bigarren atalean, *Norantz* proiektuak bildutako datuetan oinarrituz, ikerketa txiki bat aurkeztuko dugu eta gaur egun fenomeno hau Iparraldeko euskalkietan³ nola islatzen den aztertuko dugu, bi helburu nagusirekin. Batetik, lan teorikoetan deskribatutako ezaugarriak gaur egungo Iparraldeko hiztunek betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko. Bigarrenik, hiztunen emaitzak aldagai soziolinguistikoen arabera diren ala ez aztertzeko. Honetarako, corpus horretatik zenbatzaile ahulak dituzten 20 perpausak hartu ditugu eta aldagai askeetan eta menpeko aldagaian banatu ditugu. Aldagai askeak ez diren menpe ez dauden aldagaiak dira: batetik, hiztunen profil soziolinguistikoaren ezaugarriak (adina, eskolatzeta, euskalkia...); bestetik, aztertuko ditugun perpausen ezaugarri linguistikoak (zenbatzaileak modifikatzen duen IS-aren funtzioa eta agertzen den zenbatzailea). Menpeko aldagaiak ostera, aldagai askeen arabera direnak dira. Gurea hiztunek emandako perpausetako komunztadura da eta bi bariantetan banatzen da: komunztadura plurala (+) eta komunztadura eza (-).

Datuak estatistikoki aztertu ditugu, hiztunen bi komunztadura moten maiztasun taulak egin ditugu, eta horiekin batez beste aritmetiko sinpleak eta gertaeren maiztasun

¹ Eskerrak eman nahiko nizkioke Myriam Uribe-Etxebarriari, lagundu didan guztiagatik. Eskerrak ere Maia Duguini egindako iradokizunengatik, Iñaki Camino, Manu Padilla, Blanca Urgell eta Joseba Lakarrari emandako laguntza eta bibliografiagatik eta Urtzi Etxeberria eta Ricardo Etxepareri izan ditugun zalantzekin laguntzeagatik, eta haien denbora beti hain prestu eskaintzeagatik.

² Zenbatzaile lausoak izena edo izen sintagma era orokor edo zehaztugabe mugatzen dituzten zenbatzaileak dira (Zubiri, 1994: 55, moldatuta). Horretaz gain, *lauso* terminoak kardinalitaterik zehazten ez duten zenbatzaile ahulak biltzen ditu (Etxeberria & Etxepare 2009: 1. or.)

³ Datu-baseko hiztunen euskalkiei buruz Oyharçabalek eta bestek (2011:6): “Ohiko euskalkiak ere ez dira irizpide agertzen, lekuko guztiek ez baitute euskalki bat. Halere, Iparraldeko euskalki nagusi guztietako (zuberera, behe-nafarrera, lapurtera) hiztunak kontuan hartu dira. Euskalkia dutenen kasuan, informazio hori eskaintzen da datu-basean, hiztun bakoitzaren profilarik eskaini zaion tartean.”

absolutua zein erlatiboa (soziolinguistikoki zer hiztun motak egiten duen komunztadura plurala, eta zeinek ez, adibidez, zaharrek, lapurtarrek...etab) lortu ditugu. *Norantz*-eko emaitzak batetik, aurreko literaturak emandako deskripzioarekin alderatu ditugu, Etxeberriak & Etxeparek (hemendik aurrera E&E) (2009) iradokitutako sistema oinarri harturik; bestetik, komunztadura egiten duten eta egiten ez duten hiztunen profil soziolinguistikoak osatzen saiatuko gara. Lanaren bukaeran hiru eranskin gehitu ditugu corpuseko perpausen datuekin eta guk landu ditugun datu estatistikoekin.

Norantz-eko emaitzak aztertuz, euskal gramatikari buruzko lanetan dagoen hutsune bat betetzen lagundu nahi izan dugu, eta ekarpen txiki bat egin. Euskaraz aldakortasun lexikoa, fonetikoa eta morfologikoa (batez ere deklinabidean eta aditz(laguntzail)ean emandako aldaerak) aztertu dira sakonki; halere, gutxiago dira hemen bezala aldaera morfosintaktikoak semantikarekin lotuz aztertu dituzten lanak.

Euskarak duen egoera soziolinguistikoa kontuan izanda, proiektu honek euskararen berezko ezaugarriak (batez ere inguruko hizkuntzetan ematen ez direnak) belaunaldi gazteen hizkeran noraino eta nola mantentzen diren ikertzeko aukera eman digu, euskararen ezaugarri gramatikalak aldatzen ari diren ala ez egiaztatzeko, eta honen atzean egon daitezkeen aldagai soziolinguistikoak aztertzeko. Euskaraz zenbatzaile ahul lausoek zenbaki komunztaduran erakusten duten aldakortasuna hizkuntza gutxitan ematen denez (ez omen da inguruko auzo hizkuntzetan aurkitzen; ikus E&E 2009), ezaugarri honen bilakaera aztertzea bereziki interesgarria izan daitekeela iruditu zaigu.

Norantz-eko datuetan oinarrituz burutu dugun ikerketatxoaren emaitza nagusiak honela laburbil daitezke.

i) Adinak behera egin ahala, zenbatzaile lausoekin komunztadura pluralaren erabilerak gora egiten du.

ii) Komunztadura ezaren erabilerarik handiena baserri aldearekin eta Zuberoarekin loturik aurkitu dugu. Hau da, zuberotar baserritarrak dira zenbatzaile hauekin komunztadura plurala gutxien eragiten dutenak; baina horietaz gain, baserritar ez diren zuberotarrak edota zuberotarrak ez diren baserritarrak ere multzo honetan sartu beharko genituzke.

iii). Gure ikerketak erakusten du IS-ak duen funtzioak zuzeneko eragina duela aztertzen ari garen fenomenoan. Hortaz, errazagoa da komunztadura falta aurkitzea osagarri zuzenekin subjektu absolutiboekin baino. Honetaz gain, E&E-k (2009)

asumitutakoaren kontra, *Norantz*-eko laginak erakusten du, gutxi badira ere, Trantsiziozko zein Zuberoako sistemetan posiblea dela IS erगतiboarekin ere komunztadura falta baimentzea.

iv) Komunztadura eza zein komunztadura plurala baimentzeko gaitasuna duten zenbatzaile lausoen artean aldakortasun handia aurkitu dugu: zenbatzaile bat edo bestea erabiltzeak komunztaduran eragin nabarmena duela ondorioztatu dugu. Adibidez, gure laginean *zenbait* zenbatzaileak komunztadura plurala hautatzeko joera handia duen bitartean, *apur* zenbatzaileak kontrako joeran erakusten du, eta oso gutxitan hautatu egiten du komunztadura plurala.

Lan honek dituen denbora eta espazio mugengatik, hala nola *Norantz* proiektuaren laginaren tamainagatik, lan honetan eskaintzen diren emaitzak eta ondorioak fenomenoaren lehen hurbilketa baino ez badira ere, espero dugu gertuko etorkizunean baliogarriak izatea ikerketa sakonago bat egiteko.

AURKIBIDEA

1. Fenomenoaren deskribapenak eta proposaturiko analisiak.....	1
1.1. Txillardegi, <i>Euskal gramatika</i> (1978).....	3
1.2. Euskaltzaindia, <i>EGLUI</i> (1985).....	4
1.3. Etxeberria eta Etxepareren lanak.....	5
1.3.1. Hiru sistema euskaraz.....	18
2. Gaur egungo egoera Iparraldean: <i>Norantz</i> proiektua.....	20
2.1. Profil linguistikoak eta <i>Norantzen</i> metodologia.....	21
2.2. Datuen azterketa.....	23
2.2.1. Hiztunen adina aldagai gisa.....	24
2.2.2. Lurraldea edota euskalkia.....	28
2.2.3. Eskolatze, bizilekua eta jabekuntza mota.....	31
2.2.4. IS-ren funtzioaren arabera	37
2.2.5. Zenbatzaileen arabera.....	42
3. Ondorioak	51
Erreferentzia bibliografikoak	52
I. Eranskina	i
II. Eranskina.....	v
III. Eranskina.....	vii

1. FENOMENOAREN DESKRIBAPENAK ETA PROPOSATURIKO ANALISIAK

Euskaraz, aditza NOR, NORI eta NORK argumentuekin jokatzeko da nahitaez, pertsonan (1., 2. edo 3. pertsona) eta numeroan (singularra edo plurala):

- (1) a. Zuk liburuak irakurri dituzu.
- b. *Zuk liburuak irakurri duzu.

Lehenengo adibidean, osagarri zuzena (*liburuak* determinatzaile sintagma) pluraleko *-k* atzizkiaz markatuta dago, pluraltasuna denotatzen du eta aditz laguntzailean osagarriarekiko pluraleko komunztadura eragiten du. Informazio hau aditz jokatuaren kodetzen ez bada, emaitza ez da gramatikala ((1a) vs. (1b)).

Hala ere, badaude pluraltasuna denotaturik ere, halabeharrezko komunztadura eragiten ez duten subjektu edo osagarriak. Hau posiblea da argumentu hauek zenbatzaile *ahul lausoez* —hala nola, *asko*, *gutxi*, *hainbat*, *ugari*, *franko*, edo *zenbait...* bezalakoak—, lagundurik agertzen direnean.⁴

Fenomeno hau gramatika askotan (klasikoetan zein berrietan) aipatua izan bada ere, gehienetan oso azaletik deskribatzen da. Adibide gisa, eraginkorrek izan diren bi gramatika aipatuko ditugu, bata klasikoa (Laffiterena), eta bestea modernoagoa (Zubiri eta Zubirirena).

Laffitek (1962) bere gramatikan zenbatzaileak aztertzean fenomenoaren berri ematen badu ere (adibideak jarritz), ez digu fenomenoaren azalpen orokorrik eskaintzen, eta kasuan kasuko azalpenak ematera murrizten dela dirudi.

Gramatika berriagoetan antzeko egoera aurkitzen dugu deskribapenaren aldetik, nahiz eta autore batzuk azalpen semantiko bat gehitzen duten Txillardegiri (1978) eta

⁴ Lan batzuetan hautako komunztadura zenbaki kardinalarekin (*bi*, *hiru*, *lau...*) ere ematen dela aipatzen da (Txillardegiri 1978; Etxepare, 2000; E&E 2009, 2012). Hala ere, E&E-k (2009: 11-12) espresuki esaten dute kardinalarekin komunztadura eza ez dela posiblea, ez bada Zuberoan, eta Zuberoako sisteman ere, fenomeno hau oso murriztuta dagoela diote (OZ funtzioarekin bakarrik ematen omen da).

- (2) a. *Hiru ikaslek egin du. (3) a. *Hiru ikasle jin da. (4) a. Bi urrats egin du.
- b. Hiru ikaslek egin dute. b. Hiru ikasle jin dira. b. Bi urrats egin ditu.

(Coyos, 1999)

Alde batetik hori horrela delako eta, bestetik, *Norantz* proiektuan hautazko zenbaki komunztadura zenbatzaile ahul lausoekin bakarrik aztertu dutelako, guk ez dugu lan honetan hautazko zenbaki-komunztadura kardinalarekin eztabaidatuko, eta zenbatzaile ahul lausoen kasura murriztuko gara.

EGLU I-i jarrituz, baina ezer gehiago landu gabe. Adibidez, Zubiri & Zubiriren (2000) *Euskal Gramatika osoa* izeneko liburuan, numeroari buruzko atalean, singularra edo plurala noiz erabili behar den arautu egiten da. Zenbatzaile zehaztugabeen atalean (159-172. orr), *zenbat*, *zenbait*, *asko*, *gutxi*, *anitz*, *franko*, *hainbat*, *ugari*, *dezente*, *nahiko(a)* eta *aski* zenbatzaileekin, komunztadura (singularra vs. plurala) noiz erabil daitekeen zehazten dute. Haien hitzetan, *batzuk* zenbatzailea alde batera utzita (honek komunztadura plurala eskatzen baitu), zenbatzaile lauso guztiekin (*zenbait*, *franko*, *hainbat*, *ugari*, *anitz*, *nahiko*, *aski*...) komunztadura biak dira posible.

(5) a. Zenbaitek hori gezurra dela uste du(te).

b. Ikasle askok ez dauka(te) esperientziarik.

(6) a. Arrazoi franko dut hori egiteko.

b. Arrazoi franko ditut hori egiteko.

(7) a. Hainbat arazo izan dugu.

b. Hainbat arazo izan ditugu. (Z&Z 2000: 159-172)

Zubiri & Zubirik aipatzen dute zenbaki komunztadura bat ala bestea aukeratzeak ezberdintasun bat dakarrela berarekin, (8) eta (9) adibideetan *asko* eta *gutxi* zenbatzaileekin ikus daitekeen bezala. Lehenengo kasuetan, (8a) eta (9a), ez da komunztadura plurala hautatu; izena zenbakaitza da eta zenbatzaileak modifikatzen duen IS-a masa bezala tratatzen da (adibidez, (8a)-n kafeterak egindako kafe guztia edota (9a)-n upelean geratzen den garagardo guztia). Bikote honen bigarren adibideetan, aldiz, IS hori zenbagarri gisa tratatzen da eta DS horrek kopuru bat (eta ez masa bat) adieraziko luke (hau da, (8b, 9b)-n, kafe katiluak edo garagardo latak bezala interpretatzen da (op cit 2000: 163)).

(8) a. Gaur kafe asko hartu dut (kantitatea)

b. Gaur kafe asko hartu ditut (kopurua) (2000: 161)

(9) a. Garagardo gutxi geratzen da (kantitatea)

b. Garagardo gutxi geratzen dira (kopurua) (2000: 163)

Baina, adibide batzuekin ematen dituzten oharrak alde batera utzita, egile hauek ez dute aldakortasunak interpretazio semantikoan duen eragina zenbatzaile guztiekin modu sistematikoan aztertzen.

Zenbatzaile zehaztu zein zehaztugabeekin noiz erabili behar den singularra eta noiz plurala azaltzeko, hurrengo orokorpena ematen digute:

“· -tzuk atzizki pluralgileaz osatutako hitzekin (*nortzuk, zeintzuk, batzuk...*) plurala erabili behar da.

· *Batetik* gorako zenbakiekin normalean plurala erabiltzen da.

· Zenbatzaile zehaztugabeekin forma biak erabil daitezke; hala ere, objektuak multzo bezala hartzen direnean, singularreko adizkiak erabiltzeko joera handiagoa da. Masa adierazten dutenean ere (*diru, jende...*), singularra erabili beharra dago.” [Zubiri & Zubiri (2000): 429]

Hautazko komunztaduraren distribuzioa multzo eta masa kontzeptuarekin lotzean egile hauek bat egiten dute aurretik beste egile batzuk, hala nola Txillardegik (1978) eta Euskaltzaindiak (1985) proposatutako zenbait hipotesirekin. (Hurrengo atalean proposamen hauetaz sakonago hitzegingo dugu).⁵

Lan honetan ez bada ere, I. Zubiriren aurreko lan batean (*Gramática didáctica del euskera*, 1994), fenomenoaren bilakabide diakronikoaren hipotesi bat proposatzen da: jatorrizko komunztadura singularra zela eta gerora, pluralaren erabilera zabalduz joan zela defendatzen da, baina ez da hipotesi honen aldeko inolako justifikaziorik eskaintzen. Bi komunztadurak zuzentzat jotzen dira nahiz eta onartu batzuei, gaur egun, singularrezko erabilera arrotz egiten zaiela.

Laburbilduz, fenomeno hainbat gramatikatan aipatua izan bada ere, ematen diren deskribapenak nahiko azalekoak izan ohi dira. Gehienetan ez da azalpen semantikorik ematen eta, ematekotan, Txillardegik (1978) eta Euskaltzaindiak *EGLU I*-ean proposatuko hipotesietara jotzen da. Ikus dezagun, sakonago, Txillardegiren eta Euskaltzaindiaren analisi hauek zertan datzaten.

1.1. Txillardegi, *Euskal gramatika* (1978): multzoa vs. “elementuen zenbaketa”

Txillardegik *Euskal gramatika*-n (1978) *asko*, (*h*)*anitz*, *gut(x)i*, *zenbait*, *batzuk*, *beste*, *franko*, edo *gehiegi* bezalako zenbatzaileak adjektibo mugagabeak direla defendatzen du. Mugagabeak direnez beste mugagabeen ildo beretik deklinatzea espero daitekeena da; beraz, mugagabearen erabilerarekin lotzen du komunztadura plurala ez eragiteko erakusten duten gaitasuna (op. cit: 37 eta 64-67 or.).

⁵ Zenbatzaile orokorren (*guzt*, *oro*) portaera deskribatzeko idazle hauek *EGLU I*-ean esaten dena jasotzen dute, beraz, hurrengo atalean azalduko dugu.

Komunztadura aldizkatzearen azalpena pluraltasunaren izaera anitzean oinarritzen du. Hizkuntzalari honentzat, pluraleko forma guztiak bi eratan eman daitezke: (i) multzo gisa, mugagabea, edo (ii) multzo horren elementuen zenbaketa gisa, pluralean. Zehazkiago, lehenengo kasuan, multzotasuna adierazi nahi da, eta ez multzo hori osatzen duten elementuak. Interpretazio honi mugagabea dagokio eta horregatik ez da komunztadura pluralik eragiten. Bigarren adieran, aldiz, multzoari erreferentzia egin beharrean multzo hori osatzen duten elementuei egiten zaie erreferentzia. Interpretazio hau zenbatzaile kardinalekin azaltzen du: “bi liburu erosi dit” esatean multzoa ageri dela dio, eta “bi liburuak erosi ditut” esatean, ostera, multzorik ez dela ageri, osatzen duten bi elementuak baizik. Txillardegiren ustez, “bi liburu erosi ditut” bi estrategia hauen arteko nahasteka izango litzateke, inguruko erdaratik datorren kalkoa, honelako kasuetan zenbatzaileak pluralak direlako gazteleraz zein frantsesez (1978: 37).

Gaur egungo euskara modernoan zenbatzaile hauekin aipatutako bi zenbaki-komunztadura aurkitzen badira ere, Txillardegik uste du erabilera bat bestea baino zaharragoa dela, baina inguruko erdararen eraginez (non zenbatzaile mota hauek pluralarekin agertzen diren), euskaraz ere pluralarekin erabiltzen hasiko zirelako hipotesia defendatzen du (1978: 65).

1.2. Euskaltzaindia, *EGLU I* (1985): zenbaki-komunztadura eta *zenbakaitz vs. zenbagarri tasuna*

Txillardegiri jarraituz, Euskaltzaindiak (1985: 219-238) antzeko bide bat hartzen du eta aztertzen ari garen zenbatzaileek zenbaki-komunztadura mota bat ala bestea baimentzea ezberdintasun semantiko batekin lotzen du: *masa vs. banako-bat-gehi-beste-bat* oposizioarekin. *Batzuk* alde batera utzita, *EGLU I*-ean *zenbait*, *asko*, *gutxi*, *franko*, edo *aski* bezalako zenbatzaileek komunztadura plurala eragitea hautazkoa dela adierazten da. *EGLU I*-i jarraituz, komunztadura plurala baimentzen ez denean, izen sintagma zenbakaitz gisara hartzen da eta zenbatzaileak modifikatzen duten izena masa-izen baten moduan interpretatzen da. Komunztadura plurala baimentzen denean, aldiz, izen sintagmaren ardatza zenbagarri gisa interpretatzen da, eta IS hori banakoen batuketa bat balitz bezala hartzen da. Hots, *ikasle gutxi* eta *liburu asko* masa zenbakaitz gisa interpretatuko litzateke (10a)-n eta (11a)-n; aldiz, izen zenbagarri gisa

interpretatuko lirateke (10b)-n eta (11b)-n: ikasle/liburu bat, eta beste bat eta beste bat... (1985: 223, 229-230).⁶

- | | | |
|------|-----------------------------|-------------------------------------|
| (10) | a. Ikasle guti etorri zen | (zenbakaitza > masa-interpretazioa) |
| | b. Ikasle guti etorri ziren | (zenbagarria > banakoen batuketa) |
| (11) | a. Liburu asko erosi dut | (zenbakaitza > masa-interpretazioa) |
| | b. Liburu asko erosi ditut | (zenbagarria > banakoen batuketa) |

1.3. Etxeberria eta Etxepareren lanak (E&E): zenbatzaile lausoen ezaugarri semantikoak eta beren karakterizazio sintaktikoa. Hiru sistema ezberdin euskaraz.

Goian esan bezala, aztertzen ari garen fenomeno gramatika askotan aipatzen bada ere, ez da normalean honen azpian dagoen arrazoia azaltzen. Ikuspuntu honetatik,

⁶ Gramatika honek zenbatzaile hauek eskaintzen digun informazioa honela laburbil daiteke.

• *Zenbait*-ek “bat” baino gehiago esan nahi du eta kopurua mugatu gabe uzten du; aditza singularrez zein pluralez onartzen du.

- | | | | |
|-----|------------------------------|---|-------------|
| (i) | a. Zenbait zerri ikusi dut | (masa, zenbakaitza) | |
| | b. Zenbait zerri ikusi ditut | (zerri bat, beste bat..., zenbagarriak) | (1985: 221) |

• *Asko*-k komunztadura singularrez edo pluralez egin dezake, baina batean eta bestean ez dirudi gauza bera esaten denik. Adibidez, *liburu asko* IS-ak komunztadura plurala eragiten ez duenean, orduan *liburu* izena “masa” gisa hartzen dela dio-*liburu asko*-k komunztadura plurala eragiten duenean, aldiz, orduan multzo hori osatzen duten elementuen gehiketa gisa interpretatzen da (liburu bat, eta beste bat, eta beste bat... hau da, liburu ezberdinen gehiketa bezala). (Ik. (11a) eta (11b) adibideak testuan).

Asko eta *anitz* parekoak direla esaten du *EGLU I*-ek, euskalkiaren arabera bata edo beste hautatzen delarik. Ez du zehazten zein komunztadura mota baimentzen duen, hala ere, *anitz*-ekin emandako adibideetan aditza komunztatuta zein ez ageri da.

• *Gut(x)i* zenbatzaileak, *asko* zenbatzaileak bezala, komunztadura plurala baimen dezake zein ez, horren arabera banakoen gehiketa edo masa adieraziz.

- | | | |
|------|------------------------------|-------------|
| (ii) | a. Ikasle guti etorri ziren. | |
| | b. Ikasle guti etorri zen. | (1985: 230) |

• Zenbatzaile orokorreari dagokienez, *EGLU I*-ek ez du azalpen handirik ematen, baina *oro*-ren kasuan, adierazten du bi modu daudela *oro* erabiltzeko (1985: 237-238):

- | | | |
|-------|---|---|
| (iii) | a) Izena artikulurik gabe + <i>oro</i> + kasu-marka | |
| | a ₁ . Gizon oro hilkorra da | a ₂ . Gizon orok behar luke pentsatu |
| | b) Izena + art. + plurala + <i>oro</i> + kasu-marka | |
| | b ₁ . Gizonak oro hilkorra dira | b ₂ . Gizonak orok esan dute |

→ 2.2.5. atalean ikusiko dugunez, *Norantzeko* corpuseko hiztun guztiek ez dute hau bete, izan ere, batzuk (adibidez, “Pimus”, “Maal”, “Rees” hiztunek C96-n) a) pluralarekin erabili dute, eta printzipioz pluralarekin b) aukera besterik ezin liteke egin, artikulua daukalako, beraz, artikulua jartzerakoan komunztadura plurala eragiten da; adibidez, *Haur ookek ogia jan die* (PIMUS). Bestetik, b) aukera ere ez dute *EGLU I*-en arabera bete, *-ek* bikoiztuz eman dutelako, IS-aren atzean eta *oro*-ren atzean; esate baterako, *Hurrek oek jan dizie ogi* (REES). Hortaz, baliteke erabilera hedatu izana.

zenbaki-komunztadura guztiz hautazkoa dela ematen du. Ikusi dugunez, bi dira gramatika klasikoen artean dauden salbuespenak: Txillardeggi (1978) eta *EGLUI* (1985). Bi lan hauek fenomenoaren azalpen bat ematen dute aldizkatzea interpretazio semantiko ezberdinekin lotuz, goian azaldutako ildotik. Atal honetan orain arte egon den fenomenoaren analisisirik sakonena aurkeztuko dugu. Analisi hau Etxeberria eta Etxepareren (hemendik aurrera E&E) eskutik heldu zaigu. Egile hauek buruturiko lan sortan (Etxepare, 2000; Etxepare & Etxeberria, 2008, 2009, 2012; eta Etxeberria, 2012) aurreko analisisien kontrako argudio sendoak ematen dituzte eta zenbatzaile hauen analisi semantiko eta sintaktiko berri bat ematen dute, hizkuntzalaritza teorikoan azken urteotan emandako aurrerapenetan oinarrituz. Atal honetan beraien proposamena laburbilduko dugu.

• ***Komunztadura singularra ala zenbaki-komunztadurarik ez?***

Egitura hauetan sortzen den lehen galdera plurala erakusten ez duten aditz jokatuaren analisisia da. Zer dira forma hauek, forma mugagabeak (Txillardeggi, 1978), singularrak (Euskaltzaindia, 1985) ala komunztadurarik gabeko formak? E&E-k azken analisi honen alde egiten dute, bigarren mailako predikatuen analisisian oinarrituz.

Jakina denez, bigarren mailako predikatuek modifikatzen duten argumentuarekiko zenbaki-komunztadura erakusten dute, (12a) adibidean ikusten den bezala. Kasu honetan *ikasle asko* argumentuak —osagarri funtzioa betetzen duenak—, komunztadura plurala eragiten du aditz jokatuan (*ditugu*) eta, honekin batera, bigarren mailako predikatuan ere (*nekatuak*). (12b) bezalako adibideetan komunztadura plurala erakusten ez duten formak (kasu honetan, *dugu*) komunztadura singularrekoak balira —hau da, (12b)-eko aditz jokatuan objektuari dagokion zenbaki-komunztadura singularrekoa balitz—, orduan espero genukeena da adibide honetan singularrean dagoen bigarren mailako predikatua (*nekatua*) zilegiztatua izatea eta adibidea ongi egotea. Baina predikzio hau ez da bete: (12b) ez da zuzena euskaraz. Beraz, hemendik ondoriozta daitekeena da komunztadura plurala erakusten ez duten formak ez direla komunztadura singularrekoak: forma hauek ez dute zenbaki-komunztadurarik; komunztadura gabeko formak dira (2009: 2).

(12) a. *Ikasle asko nekatuak antzeman ditugu*

b. * *Ikasle asko nekatua antzeman dugu* (E&E, 2009: 2)

Badago analisi honen aldeko ebidentzia gehiago. Har ditzagun (13a) eta (13b) adibideak, non *ikasle asko* sintagmak ez duen komuntadura plurala eragin aditz jokatuan. Asumitzen badugu adibide hauetan *ikasle asko* sintagmak ez duela zenbaki-komuntadurarik eragin (hau da, *dugu* aditzlaguntzaileak ez duela argumentu absolutiboarekiko zenbaki-komuntadura singularra agertzen), orduan espero genuke zenbaki-komuntadurarik erakusten ez duten bigarren mailako predikatuk zilegiztatuak izatea egitura hauetan, eta hau da hain zuzen ere adibide hauetan aurkitzen duguna: *nekatuta* eta *nekatu* ez dute zenbaki-komuntadurarik agertzen eta esaldiak gramatikalak dira (2009: 2).

- (13) a. *Ikasle asko nekatuta dago*
b. *Ikasle asko nekatu dago*

Laburbilduz, zenbatzaile ahul lausoen zenbaki komuntadura plurala eragiten ez dutenean sortzen diren aditz jokatu hauek ez dute zenbatzaile sintagma hauekiko inolako zenbaki-komuntadurarik erakusten, ez plurala eta ez singularra ere

• ***Txillardegiren (1978) eta EGLU I-en (1985) analisisien kontrako argudioak. Zenbatzaile komuntadura gabeen ezaugarriak***

Txillardegiren aldizkatzearen azalpena *multzoa* vs. *multzo horren barneko elementuen zenbaketa* interpretazioan oinarrituta dago. Baina Etxeparek (2000) azpimarratzen duen moduan, Txillardegiren (1978) azalpenaren oinarrian den mugagabetasunaren ikuspegia⁷ aspaldian baztertua izan da. Izan ere, deskriptiboki, Txillardegik zubereraren ezaugarrietan oinarritzen da,⁸ baina egungo zubereraren arauak ez dirudite egile honek uste bezain sinpleak (Coyos, 1999). Honek denak Txillardegik komuntadura aldizkatzea azaltzeko proposatu zuen hipotesia baztertzea garrantzitsua.

Gisa berean, Etxeparek (2000) eta E&E (2009) Euskaltzaindiak eskaintako azalpen semantikoaren kontrako argudioak ere ematen dituzte. Goian aipatu bezala,

⁷ Goian esan bezala, Txillardegik (1978) defendatzen du aztergai ditugun zenbatzaileak adjektibo mugagabeak direla, eta beraz, mugagabearen erabilerarekin lotzen du komuntadura plurala ez egitea. Komuntadura aldizkatzea pluraltasunaren izaera anitzari egozten dio. Pluraltasunaren adiera batean IS multzo gisa interpretatzen da; honi mugagabea dagokio. Bigarren interpretazioan, pluralak banakoen batuketa adierazten du: adiera honi plurala dagokio.

⁸ Txillardegik (1978:60) azaltzen du adjektibo mugagabeak aditzean mugagabez komuntatu behar direla beti, zenbatzaile kardinalekin, zein zehaztugabeekin. Ideia hau babesten du esanez Zubereroan guztiz betetzen dela, eta beste lurraldeetan erregela hau ahuldu dela, erdaratik datorren plural-kutsua dela-eta.

Euskaltzaindiak forma komunztaduragabeen analisi zehatz bat proposatu zuen *EGLU I* liburuan: gramatika honek zenbaki-komunztadura plurala zenbatzaileak modifikatzen duen izenaren irakurketa zenbagarriarekin lotzen du (banakoen batuketa interpretazioarekin), eta komunztadura pluralaren eza izen honen masa-interpretazioarekin (ik. 1.2. atalean goian emandako (10) eta (11) adibideak). E&E-k analisi honen kontra egiten dute, orain azalduko ditugun argudioetan oinarritua.

Hasteko E&E-k erakusten dute aztertzen ari garen egituretan izen (guzti)ek ez dutela masa-izen bati dagokion interpretazioa erakusten. Har dezagun, adibidez, izen zenbagarrien kasua. Zein da izen zenbagarri batek izan dezakeen masa-interpretazioa? Pelletierrek (1975) horrela azaltzen du. Imajina dezagun makina bat edozer gauza birrindu dezakeena, *Zirtzikagailu Unibertsala* (Universal Grinder) deituko diogu honi. Zenbagarria den *sagar* bezalako izen bat *Zirtzikagailu Unibertsaletik* pasatzen badugu, jasoko genukeena *sagar* xehatua da. Honi *sagar* deitzen badiogu, orduan *sagar* izen honek masa denotatuko luke. Hau da hain xuxen ere (14)-n ikusten duguna. Baina hau ez da, argudiatzen dute E&E-k, aztergai dugun egituretan gertatzen dena. Adibidez, (15)-n *ikasle* izenaren interpretazioa ez da (14) adibidean *sagar* izenarekin lortzen dugun interpretazioaren parekoa: honen adiera arruntenean ez ditugu *ikasle* puxkak, eta *ikasleak* osorik daudela interpretatzen dugu (2009: 3).

(14) Entsalada *sagar* pixka bat dauka (*sagar* izena masa gisa interpretatua)

(15) *Ikasle* asko ikusi dut gaurko batzarrean (*ikasle* izenaren masa interpretazioa ez da posible)

(15)-ko adibidearen bitartez E&E-k argi erakusten digute euskarazko zenbatzaile komunztaduragabeek modifikatzen dituzten izenek ez dutela beren izaera atomikoa galtzen (hau da, ez dira masa-izen bihurtzen). Beraz, ez da zilegi komunztadura eza masa-interpretazioarekin parekatzea aztergai dugun fenomeno honetan.

Are gehiago, masa izaeran oinarritutako analisiak ezin du azaldu zergatik forma komunztaduragabeak dituzten perpaus batzuk bi irakurketa ahalbidetzen dituzten, (16) adibidearen kasuan bezala: a) alde batetik masa interpretazioa (16a), eta b) bestetik, osorik dauden elementuez osaturiko multzo pluralaren interpretazioa (16b). Euskaltzaindiaren proposamenak ezin du bigarren interpretazio hau azaldu (E&E, 2009: 3).

(16) Plater honetan *sagar* asko ikusten dut

a) Masa interpretazioa: sagar zatiak/masa

b) Multzo plurala, osorik dauden sagarrez osatua

Egile hauek ebidentzia gehiago ematen dute masa interpretazioaren kontra, erakutsiz masa denotatzen duten izenek eta forma komunztaduragabeak eragiten dituzten zenbatzaile sintagma hauek ez dituztela propietate berberak agertzen. Adibidez, Lanning-ek (1987) erakutsi zuen masek ezin dezaketela predikazio erlazio bat eraiki "homogeneoak"⁹ ez diren predikatuekin (bestela esanda, masa-izenek ezin dira predikatu ez-homogeneoen subjektuak izan), (17a) adibidean ikusten den bezala. Komunztadura plurala eragiten ez duten zenbatzaile sintagmek nahitaez masa interpretazioa izango balute, esperoko genuke (17b) adibidea gramatikala ez izatea, baina ez da horrela.

(17) a. * Ur askok 300 kilo baino gehiago pisatzen du

b. Zaldi askok 300 kilo baino gehiago pisatzen du (E&E, 2009: 4)

Horretaz gain, aztergai ditugun egituretan zenbait zenbatzaile ahul lauso masa-izenekin elkar daitezke eta osaturiko zenbatzaile sintagmak predikatu gisa ager daitezke —(18a-b) adibideetan bezala, *urre asko* eta *harri asko* sintagmekin—, baina hau ez da posible zenbatzaile hauek izen zenbagarriekin elkartzen direnean (18c). Komunztaduragabeko egitura hauetan zenbagarriak diren izenak masa gisa interpretatuak izango balira, ez genuke kontraste hau esperoko.

(18) a. Eraztun hori urre asko da

b. Zaku hori harri asko da

c. *Multzo/talde hori ikasle asko da (E & E, 2009: 4)

⁹ Homogeneoak diren predikatuak kumulatiboak (cumulative) eta banagarriak (divisive) dira (Link, 1983. *apud.* Etxepare, 2000: 109).

- *Kumulatiboa* (definizioa): Hizkuntzaren semantikan, X adierazpenak erreferentzia kumulatiboa du ondokoa gertatzen bada: X *a* eta *b*-ri buruz egia bada, orduan X *a* eta *b*-ren konbinazioari buruz ere egia da.

Adibidez: banandutako bi entitatetako bakoitza "ura" dela esan badaiteke, orduan bi entitate bakarrean elkartzeak "ur" gehiago emango du. Banandutako bi entitatetako bakoitza "etxe bat" dela esan badaiteke, ezin da esan haien konbinazioak "etxe bat" ematen duenik. Honenbestez, "ur"-ek erreferentzia kumulatiboa du, baina "etxe bat" adierazpenak ez. "Etxeak" adierazpen pluralak, hala ere, erreferentzia kumulatiboa du. Bi entitatetako (edo bi entitate multzotako) bakoitza "etxeak" badira, haien konbinaketa ere "etxeak" izango da.

- *Banagarria* (definizioa): P(x) banagarri izango da baldin eta P(y) x-ren zati bat den (Nik itzulia, Krifka, 1989. *apud.* Hogeweg eta beste, 2009: 355).

Bukatzeko, komuztadura-alternantzia hau zilegiztutzen duten zenbait zenbatzaile (hala nola *zenbait* eta *hainbat* zenbatzaileak) ezin elkar daitezke masa-izenekin. Zenbatzaile lauso hauek komuztadura plurala eragiten ez dutenean izenaren masa interpretazioa behartuko balute, orduan izen hauek ezin izango lirateke zenbatzaile hauekin (*zenbait* eta *hainbat*-ekin) elkartu. Hala ere, ondoko adibideek erakusten dutenez, irargarpen hau ez da betetzen (E & E, 2012: 5): (19) eta (20) esaldi gramatikalak dira (masa interpretazioa baimentzen ez badute ere).

(19) Zenbait ardo edan dugu (2000: 101)

Interpretazioa:

- a. *masa interpretazioa: Ardo kantitate bat edan da = ‘We drank some wine’
- b. Ardo batzuk edan ditugu = ‘We drank some wines’

(20) Hainbat haragi ekarri dugu

Interpretazioa:

- a. * Masa interpretazioa: Haragi kantitate (edo pieza) bat ekarri dugu = ‘we brought some meat’
- b. Haragi (mota) batzuk ekarri ditugu = ‘We brought some meats’

Badago beste ezaugarri bat zenbaki-komuztadura eragiten ez duten zenbatzaile sintagmak masa-izenetatik aldentzen dituen: zenbatzaile sintagma hauek irakurketa distributiboa dutela. Azal dezagun propietate hau (21)-ko adibideen bidez. *Asko* zenbatzaileak komuztadura plural eragiten duenean adibide hauek bi interpretazioei ematen die bidea: a) irakurketa kolektiboari (21a), eta b) irakurketa distributiboari (21b). Aldiz, zenbaki-komuztadurarik eragiten ez denean, adibide hauek irakurketa distributiboa bakarrik baimentzen dute (22b); irakurketa kolektiboa ez da posible (E&E 2008: 7):

(21) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuten harria (komuztadura plurala)

Interpretazioa:

- a. Irakurketa kolektiboa (gazte guztien artean altxatu zuten harria, altxatze-ebentu bat denon artean)
- b. Irakurketa distributiboa (gazte bakoitzak, indibidualki, altxatzen du harria; ikasle adina altxatze-ebentu)

(22) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuen harria (zenbaki-komunztadurarik ez)

Interpretazioa:

- a. * Irakurketa kolektiboa (gazte guztien artean altxatu zuten harria, altxatze-ebentu bat)
- b. Irakurketa distributiboa (gazte bakoitzak, indibidualki, altxatzen du harria, ikasle adina ebentu)

Propietate hau dela eta, murriztapen asko aurkituko ditugu zenbatzaile komunztadura gabeak predikatuekin elkartzeko orduan. Horrela, komunztadurarik eragiten ez duten zenbatzaile sintagmak ezin elkar daitezke predikatu kolektiboekin, predikatu mota honek (predikatu kolektiboak) ez duelako ebentuaren gaineko distribuzioa ahalbidetzen. Komunztadura plurala eragiten duten zenbatzaile sintagmak predikatu kolektiboekin ager badaitezke ere, zenbaki-komunztadura eragiten ez dutenak ezin dira predikatu mota hauekin elkartu (E & E 2012).

- (23) a. Ikasle ohi askok festa horretan topo egin zuten
- b. * Ikasle ohi askok festa horretan topo egin zuen

- (24) a. Lantegian langile asko batzartu dira
- b. * Lantegian langile asko batzartu da

- (25) a. Jonek liburu asko ordenatu ditu
- b. *Jonek liburu asko ordenatu du (2012: 155)

Topo egiteak, batzartzeak eta liburuak ordenatzeak indibiduo/objektu bat baino gehiago eskatzen dituen erlazioak dira eta irakurketa kolektiboa duten interpretazioei bidea ematen die; hortaz (23b), (24b) eta (25b)-ren ez-gramatikaltasuna.

Ildo beretik, komunztadura eragiten ez duten zenbatzaile sintagmak ezin elkar daitezke predikatu elkarkariekin (2009: 6):

- (26) a. Ikasle askok elkarren /bata bestearen antz handia dute
- b. *Ikasle askok elkarren /bata bestearen antz handia du

E&E-k horrela azaltzen dute ezintasun hau: elkarkariek operatzaile distributibo bat dute (besarkadura hartzen duten multzoaren gainean distribuzio edo banaketa bat

sortzen dute). Baina, gorago esan bezala, komunztadura eskatzen ez duten zenbatzaile hauek ere distribuzio bat sortzen dute; horretarako multzo bat behar dute, zeinetan distribuzioa egin. Baina zenbatzaile komunztadura gabeak dituzten egitura hauetan hau ez da posiblea izango, ez dagoelako multzorik zeinetan distribuzioa egin (lan hori dagoeneko elkarkarien operatzaile distributiboak egin duelako).

Badago honekin loturik beste propietate bat: zenbatzaile komunztadura gabeak eta elkarkariak bateraezinak dira (2009: 10):

- (27) a. Gazte anitz joaten dira elkarrekin ostatu (horretara)
(irakurketa kolektiboa bakarrik ahalbidetzen da)
- b. *Gazte anitz joaten da elkarrekin ostatu (horretara)
(irakurketa kolektiboa ez da posible)

Baina bi komunztadura mota posibleak dira irakurketa distributiboa duten testuinguruetan.

- (28) a) Gazte anitz joaten dira bakarrik (ostatu horretara)
- b) Gazte anitz joaten da bakarrik (ostatu horretara)

Honekin loturik, zenbatzaile komunztadura gabeek *behin-bakarrik* predikatuekin (hots, behin bakarrik gerta daitezkeen predikatuekin) ere propietate bereziak erakusten dituzte. Manifestari bat kolpatzea behin baino gehiagotan gerta daitezkeen ebentua da. Ebentu mota hau adierazten duten predikatuekin, zenbatzaile komunztaduradun zein komunztadura gabeak zilegi dira (29a-b). Aldiz, behin bakarrik gerta daitezkeen ebentuekin (*behin-bakarrik* predikatuekin), zenbatzaile komunztadura gabeak ez dira posible. Zergatik hau? E&E-ren ustez propietate hau loturik dago zenbatzaile komunztaduragabeek eskatzen duten interpretazio distributiboarekin: predikatu hauek behin bakarrik gerta daitezkeen ebentu bat adierazten dutenez, ezin dute irakurketa distributibo bat baimendu eta, honen ondorioz, ezin dute zenbatzaile mota hauek eskatzen duten irakurketari bidea eman.

- (29) a. Polizi asko kolpatu dute manifestaria
- b. Polizi askok kolpatu du manifestaria
- (30) a. Baserritar askok hil zuten putrea
- b. *Baserritar askok hil zuen putrea

E&E-k (2009: 10) aipatzen dute zenbatzaile komunztadura gabeek badutela beste ezaugarri garrantzitsu bat: zenbatzaile komunztadura gabeek ezin diezaiekete indibiduo zehatz eta espezifikoei erreferentzia egin (31a vs. 31b). Hau dela eta, zenbatzaile komunztadura gabedun sintagmak ezin dira anaforen aitzindari izan, ezta berekin konbinatzen den izenaren denotazioaren enumeraziorik egin (32).

- (31) a. Bezero anitz_i sartu dira gaur, _____i ez dira oso pozik atera
b. *Bezero anitz_i sartu da gaur, _____i ez da oso pozik atera
- (32) a. Jonek ikasle anitz ikusi ditu: Jon, Mikel, Peio, Martxel
b. * Jonek ikasle anitz ikusi du: Jon, Mikel, Peio, Martxel (2009: 10)

Laburbilduz, E&E-k argi uzten dute zenbatzaile ahil lauso komunztaduragabeek eta komunztadura plurala eragiten duten zenbatzaile lausoez oso propietate semantiko ezberdinak dituztela baina, *EGLU I*-ek proposatzen duenaren kontra, komunztaduragabeek ez dutela masa-izen interpretazioa ahalbidetzen. *EGLU I*-ek proposatzen duen analisia, beraz, ez da zuzena eta baztertu behar da.

Ondoko azpiatalean E&Ek defendatzen duten analisia laburbilduko dugu.

- ***Etxeberria eta Etxepareren (2012) analisia***

E&E-k (2012) argudiatzen dute ikuspuntu kontzeptualetik zenbatzaile komunztadura gabeek ez dutela zenbatzen. Zein da, orduan, bere funtzioa? Egile hauek zenbatzaile komunztadura gabeak kontzeptualki “neurriak” direla proposatzen dute.¹⁰ Jakina denez, neurri-zenbatzaileek beraien argumentuarekiko sentiberatasuna erakusten dute: hau da, ez dute edozein argumentu mota hautatzen.

- (33) a. Three liters of wine
b. *Three degrees of wine [op.cit. 2012: 163]

¹⁰E&E-ren ustez, zenbatzaile komunztaduragabeek Doetjes-ek (1994, 2004) *maila-zenbatzaileak* edo *gradu-zenbatzaileak* (“degree-quantifiers”) deitu zituen zenbatzaileek dituzten propietateak erakusten dituzte. Gradu-zenbatzaileek era askotariko osagarriak hautatzen dituzte beren besarkadurapean —hala nola izen sintagmek denotatutako indibiduoak eta aditz sintagmek adierazitako ebentua—, osagarri hauek interpretazio kumulatiboa bideratzen duten heinean. Gradu-zenbatzaileak neurriak dira. E&E-k gradu-zenbatzaile eta zenbatzaile komunztaduragabeen artean proposatzen duten parekotasuna zuzena bada, orduan zenbatzaile komunztaduragabeak ere kontzeptualki neurriak dira..

Irakurleak gogoan izango duenez, aurreko atalean zenbatzaile lauso komuntzaduragabeek ezaugarri bereziak erakusten dituztela erakutsi dugu: zenbatzaile hauek ezin dira predikatu kolektiboekin elkartu ezta *behin-bakarrik* predikatuekin ere. E&E-ri jarraituz, honek esan nahi duena da zenbatzaile hauen besarkadura ez dela objektuetara mugatzen, eta objektuez gain ebentua ere hartzen dituztela beren besarkadurapean. Hortaz, (34a) esaldiaren interpretazioa (34b)-koa litzateke:

(34) a. Ikasle asko etorri da gaur

b. Ikasle etorrera asko egon da gaur [op. cit. 2012: 157]

Nola azaltzen dira propietate guzti hauek? E&E-ren azalpenak bi konponente nagusi ditu: monotonizitatea eta homoformismoa.

- *Monotonizitatea*. Alde batetik, zenbatzaileak eraikitzen duen neurketa-funtzioa monotonikoa da. Zer da monotonikoa izatea? Gogoan izan zenbatzaile hauek objektuak zein ebentua har ditzaketela beren besarkadurapean. Zenbatzaileak bere besarkaduran indibiduo bat hartzen duenean, honela defini daiteke:¹¹

(35) *Monotonikoa izatea* (definizioa) (Schwarzschild 2002, 2006): μ neurri funtzio bat I dominioarekiko monotonikoa izango da baldin eta:

(i) I dominioko x eta y bi indibiduo ditugunean eta x y -ren azpiatal hertsia den, eta

(ii) $\mu(x) < \mu(y)$ [Schwarzschild 2002, 2006 *apud.* E & E, 2012: 163]

Honek zer esan nahi duen azaltzeko jo dezagun goiko (34a-b) adibideetara. (34a)-n bolumena neurketa-funtzioa monotonikoa da bere argumentu izenkiarekiko: ardo kantitate batek bolumen jakin bat badu, orduan kantitate horren azpiatal hertsia bakoitzak hasierako kantitate horrek baino bolumen txikiagoa izango du, eta hasierako kantitate horren superatalak bolumen handiagoa izango dute. Aldiz, (34a)-ko kasuan, funtzio hau ez da *ardo* izenkiarekiko monotonikoa: ardoak tenperatura jakin bat badu,

¹¹ *Monotonicity*:

A measure function μ is monotonic relative to domain I iff:

i) There are two individuals x, y in I such that x is a proper subpart of y , and

ii) $\mu(x) < \mu(y)$ [Schwarzschild 2002, 2006 *apud.* E & E, 2012: 163]

ardo horren azpiatal hertsiek ez dute temperatura baxuagoa, ezta bere superatalek temperatura altuagoa. Predikatuen kasuan, horrela defini daiteke monotonizitatea:¹²

(36) *Monotonikoa izatea* (definizioa): μ neurri-funtzio bat E ebentuen dominioarekiko monotonikoa izango da baldin eta:

- a. Bi ebentu badaude (e_1, e_2) E-n non $e_1 e_2$ -ren azpiatal hertsia den eta
- b. ii) $\mu(e_1) < \mu(e_2)$

Propietate honek azal dezake zergatik zenbatzaile komunztadura gabeak (neurketa-funtzioak direnak) bateraezinak diren predikatu kolektibo eta *behin-bakarrik* predikatuekin. *Behin-bakarrik* predikatuek ebentu bakar bati egiten diote erreferentzia; ebentu hauek ez dute *atal-osotasun* (*part-whole*) barne egiturarik, beraz ez dira monotonikoak. Gauza bera predikatu kolektiboekin: predikatu distributiboetatik aldentzen dira, hauek ez bezala, ez dutelako *atal/osotasun* egituran oinarritutako ebenturik; ez dira monotonikoak. Komunztatzen diren zenbatzaileak ez dira neurketa-funtzioak eta ez dute halako murrizketarik inposatzen bere predikatuetan, beraz era guztietako predikatuekin elkar daitezke.

- *Homomorfismoa*. E&Eren analisiaren bigarren aldea homomorfismoan oinarrituta dago (Nakanishi 2004, 2007). Nakanishi-k japonieraz dagoen egitura kuantifikazional baterako proposatutako analisisan oinarritzen dira E&E. Nakanishik proposatzen du berak aztertutako egituretan badagoela homomorfismo bat Aditz Sintagmak E-n denotatutako ebentua eta Izen Sintagmak I-n denotatutako indibiduoaren artean. Horrela, baldin badugu neurri-funtzio bat indibiduoentzat eta homomorfismo funtzio bat E-tik I-ra, posible da ebentuarentzat ere μ neurketa-funtzio bat eratortzea. Honi esker zenbatzaile komunztadura gabeek indibiduoak neur ditzakete eta (homomorfismo funtzioari esker, zeharka) ebentuek ere aldi berean. Hori dela eta, zenbatzaile komunztadura gabeek monotonikoak izan behar dute ez bakarrik AS-ren *atal-osotasun* egiturarekiko baizik eta izenkiaren *atal/osotasun* egiturarekiko ere. *Atal-osotasun* egiturarik ez duten ebentuekin ezin daitezke erlazio guzti hauek zilegiztatu, hortik letorke zenbatzaile komunztadura gabeek *behin-bakarrik* predikatuekin eta predikatu kolektiboekin erakusten duten bateraezintasuna.

¹² *Monotonicity*:

A measure function μ is monotonic relative to domain E of events iff:

i) There are two events e_1, e_2 in E such that e_1 is a proper subpart of e_2 , and

ii) $\mu(e_1) < \mu(e_2)$

[Schwarzschild 2002, 2006 *apud*. E & E, 2012: 163]

Proposamen semantiko hau jasotzen duen analisi sintaktikoa ere proposatzen dute E&Ek: ikuspuntu sintaktikotik zenbatzaile hauek Neurri Sintagma (NeurS) baten burua lirateke. E&Ek Borer-ek (2004) proposatutako teoriari jarraitzen diote. Egile honen arabera, izenek ez dute inolako berezko espezifikazio edo ezaugarri gramatikalarik (ez eta zenbakaitz/zenbagarri tasunik ere) egitura sintaktikoan txertatuak direnean, eta edozein espezifikazio gramatikala IS-aren gainetik dauden geruza sintaktikoen bidez gehitzen da. Borerrek proposatzen duen DS-aren egitura hau da:

(37) [DS [ZENBATUSUN / NUMEROS [KLASIFIKATZAILES [IS]]]]

IS-aren gainetik KlasifikatzaileS eta Zenbatusun/NumeroS daude. KlasifikatzaileS eta Zenbatusun/NumeroS hautazkoak dira. KlasifikatzaileS-k banaketa- edo zatiketa-funtzio bat (*a portioning out function*) betetzen du: izenak denotatzen duen materia (*stuff*) ataletan banatu edo zatikatu egiten du. Klasifikatzaileak betetzen duen hasierako zatiketa-funtzio hau (izenak denotatzen duen materia ataletan banatuz edo zatikatuz) ezinbestekoa da gero izenak denotatutako materia neurtu edo zenbatu ahal izateko. (Bestela esan, klasifikatzaileak betetzen duen zatiketa- edo banaketa-funtzioari esker, izenak denotatutako materia neurketarako eta zenbaketarako prest gelditzen da). Borerrek defendatzen du hizkuntza guztiek dutela KlasifikatzaileS bat proiektatzeko gaitasuna, ez bakarrik ageriko klasifikatzaileak dituzten hizkuntzek (Txinerak bezala). Ingeleseztan banaketa-funtzio hau *-s* morfemak beteko luke. KlasifikatzaileS-rik ez dagoenean, zatiketa-funtzio hau ez da gertatzen eta, honen ondorioz, izenak masa-interpretazioa izango luke balio lehenetsi gisa, (38)-n bezala.

KlasifikatzaileS-aren gainetik Zenbatusun/NumeroS (*QuantityP* or *NumberP*) izango genuke. Islapen hau beharrezkoa da izenak denotatzen duena kuantifikatzeko/zenbatzeko. Zenbatusun edo Numero Sintagmak zenbaketa-funtzio bat betetzen du: KlasifikatzaileS-k burututako zatiketa-funtzioaren ondorioz zenbat atal ditugun esaten digu ZenbatusunS-k. (39)-eko egiturean funtzio hau *many/three* zenbatzaileek betetzen dute. (38)-eko egiturean bezala KlasifikatzaileS-rik ez dagoenean eta izenak masa-interpretazioa duenean, orduan Zenbatusun edo NumeroS-k masa honen kantitatea zenbatekoa den adierazten digu. (38)-eko egiturean *much* zenbatzaileak beteko luke funtzio hau. Bukatzeko, islapen guzti hauen gainetik DetS izango genuke.

(38) [DS [ZENBATUSUN much {KLASIFIKATZAILES- [IS money]]]]

(39) [DS [ZENBATUSUN many/three [KLASIFIKATZAILES -S [IS person]]]]

zaticeta-funtzioaren bidez lortutako atalak zenbatzen ditu. ZenbakiS egoteak enumerazioa eta diskurtso-anaforak eraikitzea ahalbidetzen du.

(41) *Zenbatzaile lauso komunztadura gabeak*

[DS [NEURRIS ASKO [KLASIFIKATZAILES Ø [IS IKASLE]]]] → homomorfismoa

(42) *Komunztadura plurala eragiten duten zenbatzaile lausoak*

[DS [ZENBATUS ASKO [KLASIFIKATZAILES Ø [IS IKASLE]]]]

E&Ek fenomenoaren analisi semantiko eta sintaktiko berri eta sakon bat emateaz gain, fenomenoaren aldakortasuna aztertzen dute. Egile hauei jarraituz, euskaraz hiru sistema ezberdin aurkitzen ditugu. Hurrengo azpiatalean, 3 sistema hauek azalduko ditugu.

1.3.1. Hiru sistema euskaraz

Goian laburtutako analisi semantiko eta sintaktikoaz gain, E&E-k (2009) aurreko lan gehienek aztertu ez dituzten zenbait aldagai sintaktiko kontuan hartu dituzte fenomenoaren deskribapenean, hala nola IS-aren funtzio sintaktikoaren garrantzia (zubereraren kasua Coyos-ek (1999) jada deskribatu zuen). Ikusiko dugunez, hau funtsezkoa izango da euskalkien artean dagoen bariazioa azaltzeko.

E&E-k Euskal Herriko euskalki nagusiak hiru sistematan sailkatu dituzte aztertzen ari garen zenbaki-komunztadura fenomenoarekiko: a) Mendebalde-Erdialdekoa, b) Trantsiziozkoa (Lapurdikoa)¹³ eta c) Zuberoakoa. Bi ezaugarritan oinarritzen da aldakortasuna. Alde batetik, zenbatzailearen funtzio gramatikalaren eragina dugu. Mendebalde-erdialdeko sisteman komunztadura aldizkatzea edozein motatako subjektu (absolutibo zein ergatibo) edo osagarriekin (osagarri zuzena zein zehar osagarriekin) gerta badaiteke ere, beste bi sistemek ez dute askatasun hau erakusten. Horrela, Trantsizioko eta Zuberoako sistemetan, subjektu ergatiboekin komunztadura plurala nahitaezkoa dela dirudi. Zuberoako sisteman, gainera, zehar osagarriekin¹⁴ ere komunztadura plurala beharrezkoa da. Bigarrenik, goian azalduetako arrazoiengatik hemen aztertuko ez badugu ere, aldakortasuna zenbaki kardinalen jokabidearekin ere loturik dago, Zuberoako sisteman zenbatzaile lausoek ez dutelako

¹³ E&E-k ez dute zehaztu Nafarroa Beherea zein sistematan sartuko litzatekeen. Era berean ez da zehazten “Lapurdi” edo “Zuberoa” diotenean probintziaz edo euskalkiaz ari diren.

¹⁴ Lan honetan guk ezin izango dugu zehar objektua aztertuko *Norantz*-eko galdetegiak ez zuelako funtzio hau kontuan hartu.

nahitaez komunztadura plurala eskatzen, beste bi sistemetan komunztadura plurala beharrezkoa bada ere. Aldakortasun hau ondoko taulan laburbiltzen da (E&E 2009:138).

(43) *Etxeberria & Etxepareren (2009) hiru sistemak*

Komunztadura eza posiblea da?	Mendebalde- erdialdea	Trantsizioa “Lapurdi”	Zuberoa
Subjektu ergatiboa: <i>Neska askok lan egin...</i>	BAI (eza)	EZ (plur.)	EZ (plur.)
Subjektu absolutiboa: <i>Neska asko etorri...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
Osagarri absolutiboa: <i>Nik neska asko ikusi...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
Osagarri datiboa: <i>Hark neska askori liburua eman...</i>	BAI (sg.)	BAI (sg.)	EZ (plur.)
Zenbaki kardin ¹⁵ osagarri zuzenean: <i>Zuk hiru ikasle ikusi...</i>	EZ (plur.)	EZ (plur.)	BAI (sg.)

Etxeberria & Etxepare (op. cit.138)

Hurrengo atalean, *Norantz*-eko corpuseko datuak hemen eskainitako deskribapenarekin erkatuko ditugu. Hala ere, *Norantz*-eko galdetegiak ez duenez zehar osagarriari buruzko ezta zenbatzaile kardinalei buruzko galderarik biltzen, ezin izango dugu gure analisisan honi buruzko aldakortasuna kontuan hartu edo neurtu. Hau dela eta, espero duguna da gure laginean bigarren eta hirugarren sistemaren arteko ezberdintasunik ez agertzea (E&E-ren arabera hauek direlako bi sistema hauek elkarrengandik ezberdintzeko garrantzitsuak diren bi ezaugarriak).

2. GAUR EGUNGO EGOERA IPARRALDEAN: *NORANTZ* PROIEKTUA

¹⁵ E&E-ri jarraituz, taula honetan 3 sistemen arteko deskribapen osoa emateko, kardinalek komunztatze edo ez komunztatze duten gaitasunaren berri eman dugu. Hala ere, kontuan izanda *Norantz* proiektuaren barruan landutako galdetegiak ez duela gai hau joratzeko aukerarik ematen (zenbaki komunztadura eza ez da kardinalekin lantzen), lan honetan ez dugu gai hau landuko.

Lanaren lehen atalean zenbatzaile ahul lausoen zenbaki-komunztadura sistema eztabaidatu dugu. Bigarren atal honetan ikerketa lan txiki bat burutu nahi dugu, eta *Norantz* proiektuak Iparraldeko hiztunen artean egindako elkarrizketen emaitzetan oinarrituz, gaur egungo Iparraldeko hiztunak deskribatutako sistemekin noraino bat datozen aztertu nahi dugu.

Hizkuntzak, gizarte ekoizpenak diren heinean, beti dabilta aldatzen, eta haien ezaugarrietako bat, denborak aurrera egin ahala, etengabeko berrikuntzak egitea da (Weinreich, 1953. *apud.* Oyharçabal eta beste, 2011), aldaketa horiek borondatez eginak ez badira ere. Iparraldeko euskalkien arteko aldakortasuna eta euskalki hauek jasaten ari diren aldaketak aztertzeko proiektu baten beharra zegoen. Behar honi erantzuteko, 2009-2011 urteen bitartean CNRS-eko Iker laborategian *Norantz* proiektua burutu zen, Beñat Oyharçabal ikerlariaren zuzendaritzapean. Proiektu honen helburua hauxe zen: Ipar Euskal Herriko gaur egungo hiztunen euskararen gramatikaren oinarriak zer bidetatik doazen ikustea eta datu-base batean bildurik erakustea, Iparraldeko hizkeren gramatikaren bilakaeraren behagune baten zimenduak finkatuz (Oyharçabal, Salaberria & Epelde, 2011: 2-3). Datu horiek guztiak webgunean bilduta daude, nahi duen ororentzat eskuragarri: <http://norantz.org/>.

Proiektu honen barruan aztertu zituzten ezaugarri gramatikalen artean zenbatzaile (lauso)en komunztadura dugu; horretarako 20 galdera prestatu zituzten, proiektuan C4 atalaren azpian sailkatuta daudenak (C79-C98 esaldiak, hain zuzen ere), *Kuantifikatzaileen numero aditz-komunztadura* atalaren azpian bildurik, eta horiek dira, hain zuzen guk ikerketa hau egiteko baliatu ditugunak. Galdera sorta horretan, hainbat zenbatzaileekin osatutako perpausak ageri dira, funtzio ezberdinak betetzen dituzten IS-ez lagunduta. Hortaz, fenomeno hau aztertzeko diseinatuta daude propio. Bestalde, galdekatutako hitzunei buruzko datu asko biltzen ditu, hala nola hauen adina, jatorria, eskolatzea, sexua, euskalkia, etab. Honek guztiak dauden emaitzak ikuspuntu soziolinguistiko batetik aztertzea ahalbidetzen du. Lan honetan ikerketaren aldetik ekarpen txiki bat egin nahi dugu eta *Norantz*-ek bildu dituen datu guzti hauek, oraindik sistematikoki aztertu gabe daudenak, aztertuko ditugu hemen.

Norantz-en bidez bildutako lagina mugatua bada ere (59 hiztunek itzuli zituzten 20 esaldiz osatua), datu-base honen ustiapenak fenomeno honen argazki nahiko osatua emango digu Iparraldeari dagokionez, etorkizunean sakonago egin daitekeen lanketa morfosintaktiko, dialektologiko eta soziolinguistikoaren oinarriko bidea irekiz.

Hiztunen euskalkien ezaugarrien analisisia egin ahal izateko, eta hiztunen artean alderatu ahal izateko, *Norantz* proiektuan hiztun guztiei metodologia berbera aplikatu zitaien: aztertu nahi ziren euskararen gramatikako atal nagusiak biltzen dituzten esaldiak eman zitzaizkien (frantsesez) eta euskarara ahoz itzul zitzaizen eskatu zitzaizen; itzulpen horiek grabatu eta transkribatu ziren. *Norantz*-eko ikerlariek espresuki aitortzen dutenez, elizitazio sistema honek arazoak izan litzake, izan ere, hizkuntza handitik hizkuntza txikitura itzultzean, hizkuntza handiaren ezaugarriren bat kalkatzeko arriskua baitago. Adibidez, gure kasuan aztertzen ari garen zenbatzaileen parekoek frantsesez zenbaki-komunztadura plurala eskatzen dutenez, frantsesaren eraginez zenbatzaile hauekin komunztadura plurala gehiagotan egiteko arriskua, kasu. Horretaz gain, kontuan hartu behar da erantzunak ez direla beti frantsesez galdetutako esaldiaren isla zuzenak izan, eta askotan ikuspuntu semantikotik antzekoak diren emaitzak jaso badira ere, erantzun hauek ez dira beti bilatzen zena izan (adibidez, erantzunean *ikasle gutxi etorri da/dira* eman beharrean, *ez da/dira ikasle asko etorri* esatea).

Euskararen azterketa sakon bat egingo bagenu, E&E-k (2009) proposatutako hiru sistemen ezaugarriak noraino betetzen diren aztertu beharko genuke, beraiek ikertutako faktoreak (predikaturen eragina, esaldiek ahalbidetzen dituzten interpretazioa ezberdinak, etab.) kontuan hartuz. Tamalez, lan hori ezin daiteke hemen egin. Alde batetik, ditugun datuak Iparraldeko hiztunen erantzunetan oinarrituta daude. Mendebaldeko sistema, beraz, ezin azter dezakegu. Bestetik, E&E-k bi sistema ezberdin proposatzen dute Iparraldeko hizkeretarako: Trantsizio-sistema (Lapurdi) eta Ekialdekoa (Zuberoa). Goian emandako (43) taulan ikusten den bezala, bi ezaugarri ezberdintzen dute Trantsizio-sistema Ekialdeko sistematik: a) Trantsizio-sisteman osagarri datiboak ez du zertan zenbaki-komunztadura plurala eragin, aldiz Ekialdeko sisteman komunztadura plurala nahitaezkoa da; b) Trantsizio-sistemak (eta mendebalde-erdikoak ere) komunztadura plurala eskatzen du zenbatzaile kardinalekin; aldiz, Ekialdeko sisteman plurala ez da nahitaezkoa. Tamalez, *Norantz*-ek prestatu zuen galdetegian bi faktore hauek ez ziren kontuan hartu, eta galdetegiak atal honetan ez du argumentu datiborik aztertzen, ezta zenbatzaile kardinalik duen esaldirik ere. Hori dela eta, ez dago modurik E&E-k proposatutako sailkapena Iparraldeko hizkeretan betetzen den ala ez jakiteko. Bestaldetik, E&E-ren analisiaren arabera, badago Trantsizio-hizkerak eta Ekialdekoak mendebalde-erdialdekoetik ezberdintzen duen ezaugarri bat: subjektu ergatiboekin zenbaki-komunztadura ez egiteko posibilitatea. Gure ikerketako

hiztun guztiak Trantsizioko edo Ekialdeko sistemetakoak direnez, ez ditugu mendebaldekoekin alderatzeko aukera izan, baina ezaugarri honetan arreta jarri dugu egiaztatzeke ea, E&E-k dioten bezala, ezinezkoa den IS ergatiboekin zenbatzaile komunztadura gabeak erabili. Honez gain, E&E-k kontuan izandako beste zenbait irizpide aztertuko ditugu, hala nola zenbatzailea modifikatzen duen sintagmaren funtzioa (subjektua *vs.* osagarri zuzena, alde batetik, eta subjektu mota ezberdinak, bestetik). Goian azaldu bezala predikatuen izaerak garrantzi handia badu ere, *Norantz-*eko galdetegiak ez du bidea irekitzen E&E-ak aztertutako predikatu mota guztien ezaugarriak egiaztatzeke; faktore hau, beraz, alde batera utzi beharko dugu. Bukatzeko, aldakortasuna erakusten duten zenbatzaile guztiek portaera berbera erakusten duten ala ez hartuko dugu kontuan. Guk dakigularik, orain arte ez da inoiz hau estatistikoki neurtu beraz, laginak ezartzen dituen mugen barne, hau aztertzea interesgarria izan daitekeela iruditu zaigu.

2.2. Datuen azterketa

*Norantz-*etik datuak eskuratzeko, proiektuko web-gunera jo dugu, eta han galdetegiko C4 ataleko emaitzetara abiatu gara; hau da, *Kuantifikatzaileen numero aditz-komunztadura*, 20 galderaz osatuta dagoen azpiatalera, C79-C98 galderak biltzen dituena. 59 hiztun horien 20 erantzunak banan-banan aztertu ditugu goian aipatutako faktore guztiei erreparatuz: sintagmaren funtzioa (subjektua *vs.* osagarri zuzena) eta subjektu mota (ergatiboa *vs.* absolutiboa), alde batetik, eta zenbatzaile mota, bestetik. Hogei esaldi horietatik, lehenengo zortzi perpausetan (C79-C86) zenbatzailea modifikatzen duen IS-a absolutibo kasuan agertzen da eta subjektu funtzioa betetzen du. Hurrengo sei esaldietan (C87-C92) zenbatzailea beste sintagma absolutibo bat modifikatzen du, baina kasu honetan sintagma horrek osagarri zuzenaren funtzioa betetzen du. Bukatzeko, azkeneko sei esaldietan (C93-C98) zenbatzaileak sintagma ergatibo bat modifikatzen du, subjektu funtzioa duena (ikus II. eranskina).¹⁷

Semantikari dagokionez, kontuan hartu behar da batzuetan hiztun berberak bi forma onar ditzakeela, komunztadurarik gabe eta komunztadura pluralarekin, forma bakoitza esanahi zehatz ezberdinekin lotuz (kolektiboa eta/ala distributiboa, adibidez). *Norantz-*en erabilitako metodologiagatik ez dakigu hiztunek, irakurketa anbigua izan

¹⁷ Aztertzen ari garen laginaren atalean 20 esaldi badaude ere, horietariko 2 esalditan agertzen diren bi zenbatzailek (*guzti* eta *batzuk*) ez dituzte inoiz komunztaduragabeko formak onartzen. Hala ere, perpaus horietan aldakortasuna onartzen duten beste zenbatzaile batzuk (*oro* eta *zenbait.*) ere ematen direnez, kontuan hartzeak dira.

dezakeen esaldi baten kasuan, nola ulertu duten itzultzeko eskatu zaion esaldia, eta honek nola baldintzatu duen aukeratutako forma. Horregatik ere, ezin izango dira lan sakon batean aztertu beharko lirakeen aldagaien arteko elkarreragin guztiak aztertu. Hemen aurkeztuko dugun lana, beraz, lehen hurbilketa bat bezala baino ezin daiteke har. Halere, aurkeztuko ditugun emaitzak fenomenoaren nondik norako orokorra erakusteko baliagarriak direla iruditzen zaigu, eta etorkizunean burutu daitezkeen beste zenbait lanen oinarria izatea espero dugu.

Aurki daitekeen aldakortasuna baldintza soziolinguistikoaren arabera den aztertzeko, eta datuen azterketa ahalik eta modurik zehatzenean egiteko helburuarekin, *Statistical Methods in Language and Linguistic Research* (2012) eskuliburua erabili dugu. Aditz laguntzaileak interpretatzeko, bestetik, *Amiküze eskualdeko heskuara* (I. Camino, 2016) erabili dugu, hiztunek emandako erantzunetan behe-nafarrerazko edota zubererazko zenbait forma ilunak edo ezezagunak suertatu zaizkigulako. Guztira, 1179¹⁸ adibide aztertu ditugu; dena den, aitortu behar dugu, nahiz eta lan honetarako 59 hiztun asko izan, Iparralde osoaren egoeraren erakusgarri izateko kopuru oso baxua dela, eta beraz, lehen aipatu bezala lan honen emaitzak tentuz hartu behar direla eta behin betiko ondorioak baino, joerak bezala aztertu behar direla, euskal hiztunen errealitatearen puska txiki bat baino ez dutelako islatzen.

2.2.1. Hiztunen adina aldagai gisa


Atal honetatik aurrera, irakurleari ohartarazi nahi diogu zenbatzaileak ez direla banan-banan aztertu, eta ez dela IS-ren funtzioa kontuan hartu, aurreko bi ataletan bezala. Hemen, analisia corpuseko perpaus bakoitzari jarriko diogu arreta (analisia perpauska egin dugu, beraz), hiztunen ezaugarri soziolinguistikoaren arabera emaitzak lortzeko. Azterketa sakon batean kontuan hartu beharreko aldagai guztien arteko eragina aztertzea ezinezkoa da GRAL bezalako lan batean, ditugun espazio eta denboren mugengatik.

Atal hau lantzeko orduan, lehendabizi azpimarratu beharrekoa da hiztunen hiru adin tarteak ez daudela proportzionalki islatuak; izan ere, -30 urteko gazteak 59 hiztunen %54,2 dira, 40-60 tartekoak %20,3 eta +70 tartekoak %25,4. Adinaren ikuspuntutik, beraz, lagina ez dago orekatuta, eta alderdi hau kontuan hartu behar da ezinbestean emaitzak aztertzeko orduan, gazteei garrantzia berezia eskaini dien corpusa

¹⁸ Jatorriz 1180 adibide ziren, baina esaldi bat baztertu behar izan dugu, esaldiak ergatiboa eskatzen zuelako, eta hiztunak beste zentzu bat eman diolako 'absolutiboa + izan' egitura erabiliz. Hala ere,

baita. Hurrengo grafiko honek, batetik, bertikalki, 20 perpaus (C79-C98) erakutsiko digu zein den kolektibo bakoitzaren komunztadura ezaren maiztasuna itzuli behar zituzten esaldi guztietatik; hau da, gazteen artean zenbatek ez dituzten inoiz zenbatzaile komunztadura gabeak erabili (0 aldiz), eta zenbatek erabili dituzte maizen (16 aldiz), eta era berean talde guztiekin. Bigarrenez, horizontalki, kolektibo bakoitzaren kopurua; horregatik, 40-60 eta +70 urte-tarteetako lerroak, mozten dira, eta -30 urtetako lerroa askoz luzeagoa da, hiztun gehienak azken tarte horretakoak direlako. Beraz, puntu bakoitzak hiztun baten corpus osoan komunztadura eza zenbat aldiz baimendu egin den islatuko luke. Grafiko honek sorrarazten digun galdera da ea zergatik gehienez 16 aldiz ekoitzi duten.¹⁹

(45) *Komunztadura ezaren maiztasuna lagineko 20 adibideetan, hiztunen adinaren arabera*



Grafikoan (45) ikus daitekeenez, badira 13 hiztun beti komunztadura plurala eskatzen dutenak. Bestela esan, 13 hiztun hauek (hiztun guztien %22 direnak) ez dituzte komunztadura gabeko zenbatzaileak inoiz baimendu; hau da, hiztun hauek 0 perpaus dute komunztadura gabeko zenbatzaileekin (beheko taulan, 0-ari dagokion lekua beheko marran puntu bat jarritz islatu dugu). Horrez gain, komunztadura plurala beti erabili duten 13 hiztun horietatik, 3 hiztun (hiztun guztien %5,08) 40-60 adin tartekoak dira, eta beste 10 (hiztun guztien %16,9) -30 tartekoak. Esanguratsua dena da +70 urteko guztiek perpausen bat behintzat komunztadurarik gabe eman dutela.

(46) *Adin-tartearen arabera komunztadura*

¹⁹ Era horretan, puntu batek esan nahi duena da hiztun batek zenbat aldiz ez duen komunztadura plurala ekoitzi. Marra urdinak -30 urte-tartea irudikatzen du, berdeak 40-60 tartea eta gorriak +70 tartea. *Norantz*-en ordenari jarraitu diogu, beraz, lehenengo gaztea MAAL izango litzateke, 6 aldiz komunztadura eragin ez duela, gero SEAI, komunztadura eza 0 aldiz egin duena... etab.

Adin-tartea	– KMZ (batez- bestekoa)	Adibideen %100-ean pluralez KMZ+	Hiztun guztiek KMZ+ perpausak
-30 urte	3 batez beste	10 hiztun ²⁰	C82-C83 C96-C98
40-60 urte	5,16 batez beste	3 hiztun	C82-C83
+70 urte	7,93 batez beste	0 hiztun	C82-C83 C93-C98

● **70 urte gorako hiztunak:**

70 urte gorako hiztunek komunztadura gabeko formak erabiltzeko ohitura handiagoa dute beste adin tartekoek baino. Hortaz, +70 urteko hiztunek komunztadurarik gabeko formak 7,93 aldiz egin dute batez beste. Hala ere, kontuan hartu behar da arestian aipatu dugula C93-C98 esaldietan zenbatzaileak modifikatzen duen IS subjektu ergatiboa dela eta horietan +70 urte-tarteko inork ez duela komunztadura eza eman; honetaz gain, C82-C83 perpausetan (*guzi, oro, batzuk* eta *zenbait* zenbatzailedunak) adineko hiztun guztiek komunztadura plurala hautatu dute, beraz, gehienez 10 perpausetan baimendu dute aztertzen ari garen estrategia, subjektu ergatibodunak, alegia. Kontuan izanda adin tarte honetako hiztunek komunztadura gabeko formak gehien erabiltzen dituzten hiztunak direla, bereziki deigarria da subjektu ergatiboekin inoiz ez egitea.

● **40-60 urte tarteko hiztunak:**

40-60 urte tartekoek, hiztunen artean errepresentazio gutxien dutenek (%20'3), batez besteko 5,16 aldiz baimendu dute komunztadura gabeko estrategia. Hauek bai, subjektu ergatibodun formetan komunztadura plurala zein eza eman dute, hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala.

● **30 urte beherako hiztunak:**

Azkenik, hiztun gazteen datuak aztertzen baditugu ikusten duguna da tarte honetako hiztunek beste adin tartekoek baino gutxiagotan erabiltzen dituztela komunztadura gabeko formak, 3 aldiz batez beste. Hala ere, hiztun multzo honetan alde

²⁰ Honek esan nahi duena da -30 adin tarteko 10 hiztunek corpus osoan zehar komunztadura plurala egin dutela.

handia dago hiztunak beraien artean erkatzen baditugu. Hortaz, aipatu beharra dago gazteen artean bad(ir)ela hiztunak/hiztun bat komunztadura gabeko formak erabiltzeko joera oso nabaria erakusten du(t)enak: honen adibidea GORBA.

Hiztun honek aldakortasuna erakuts dezaketen (ekoiztu dituen 2 perpausetan *guzti* zenbatzailea agertzen da, eta honek beti komunztadura plurala eskatzen du) 14tan erabili du estrategia hau. Hiztun honen datuak aztertuz gero, ikusten dugu ikastolan eskolatua izan zela; ez da euskalkiari buruzko informaziorik ageri, baina baserrian bizi dela zehazten da, beraz, baliteke baserri inguruko hiztunen/hizkeraren eragina/joera islatzea (hurrengo atalean puntu honetara itzuliko gara). Badago beste gazte bat ere, ANHAZ, forma komunztaduragabeak maiz erabiltzen dituena, 10 aldiz erabili baititu. Hiztun honen ezaugarriak oso bestelakoak dira: hirixkakoa da, lapurtarra eta euskara H1 du.

(47) *Laburbilduz: komunztadura adinaren arabera*

·Laburbilduz:

- i) +70 urteko hiztunak komunztadura plurala gutxien egiten dutenak dira (7,93 aldiz batez beste).
- ii) Gazteak komunztadura pluralera lerratzen dira gehienbat (3 aldiz bakarrik erabiltzen dituzte forma komunztaduragabeak batez beste). Hala ere, beraiek dira (tarteko belaunaldikoekin batera) subjektu ergatiboekin komunztadurarik gabeko formak baimentzen duten hiztunak (+70 hiztunek ez baitute holakorik ekoiztu).

Aurrekoan esan bezala, ematen ditugun ondorio eta orokorpenak tentuz hartu behar dira laginaren tamainagatik.

·Informazio gehigarria:

2017an argitaratutako VI. *Inkesta Soziolinguistikoa*-n jaso zenari erreparatuz, Iparraldean euskaldunen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagoren artean dago (%28,1), eta adinean behera egin ahala, kopurua behera doa, 35-49 urte-tartera iritsi arte (%14,6); adin honetan, gora egiten baitu berriro. Egia da 16-24 eta 25-34 urte bitartekoen euskaldunen ehunekoak gorantz egin duela 1996. urtean egin zen inkestatik —orain %18,9 eta %15,7 baitira hurrenez hurren, baina hala ere, portzentaiarik baxuena gazteen adin tartean dago. Aztergai dugun fenomenoaren aurrean hiru belaunaldiko hiztunen jokabide ezberdinak aztertzeko orduan, beraz, zentzuzkoa litzateke pentsatzea gaur egun euskaldun gazteen artean frantsesak bere lekua egitea lortu duela eta

beharbada, frantsesaren eraginez, pluralaren komunztadura hedatuz joan dela. Hau da, azken finean, Txillardegik (1978) jada iradoki zuena proposatu zuenean pluralezko forma hedatzen ari zela (bere ustez jatorrizkoa zen “singularrezko” formaren ordeztu). Hipotesi hau zuzena den ala ez egiaztatzeko ikerketa sakonago bat beharko genuke, fenomenoaren bilakabide diakronikoa ere kontuan hartzen duena. Bitartean, eta ikerketa hau burutu arte, posibilitate gisa mantendu behar dugu agian belaunaldi gazteek erakusten duten plurala gehiago erabiltzeko joera hau frantsesaren eraginez sortu dela. Hala ere, ez dakigu zein izan daitekeen 60 urte baino gutxiagokoek subjektu ergatiboekin komunztadura egiten ez duten bakarrak izatearen arrazoi soziolinguistikoa (egotekotan).


Amaitzeko, hizkuntza bateko aldaera batek eragin handiagoa baldin badu adinekoengan, eta aldi berean, gutxituz baldin badoa belaunaldietako beste muturrean, aldaera hori atzera egiten ari dela esatera mentura gintezke (Almeida, 2003: 155). Gu aztertzen ari garen kasuan bezala, pentsa genezake zenbatzaileekin komunztadura ez egitearen joera atzera egiten ari dela, gazteengan gero eta gutxiago agertuz.

2.2.2. Lurraldea edota euskalkia

Proporzionalki, Behe-Nafarroa eta Zuberoa dira euskaldunen dentsitatearen ikuspuntutik ehunekorik handiena duten lurraldeak (%49,5), hots, 16.000 euskaldun. Hala ere, kopuruari dagokionez, hiztun kopururik handiena Lapurdin dago (Baiona-Angelu-Miarritze (BAM) kontuan hartu barik): 26.000 biztanle, populazioaren %23 osatzen duena. Baiona-Angelu-Miarritze hirigunean, aitzitik, %8,4 besterik ez dira euskaldunak: 9.000 hiztun (VI. Inkesta soziolinguistikoa, 2016).

(48) *Iparraldeko euskaldunen banaketa hiru probintzietan*

Euskaldunen banaketa (%)



Norantz datu basean hiztunak euskalkiaren arabera *L* (=lapurtera), *BN* (=behe-nafarrera) eta *Z* (=zuberera) markekin identifikatuak ageri dira; euskalkirik ez dutenenei


marra bat jarri diete (13 gazte eta 40-60 adin-tarteko hiztun bat). Gazteak 32 direla kontuan hartuta, gazteen artean ehuneko altu bat gelditzen zaigu euskalkien arabera sailkatu gabe: hiztun guztien %23,7 hain zuzen ere. *Norantz*-ek ematen digu informazioaren arabera, zuberera da Iparraldeko euskalkietatik lagineko hiztunen artean errepresentaziorik txikiena duena: elkarrikeztatutako hiztunen %16,9. Honen ostean lapurtera dugu, lapurtarrek hiztunen %22 osatzen dutelako, eta azkenik behe-nafarrerak: hiztunen %37,3.

Lurraldearen/euskalkiaren araberako analisi honetan ere goian aipatutako espazio eta denbora mugen berberengatik, azterketa orokorra egitera behartuta gaude. Hurrengo ikerketa baterako utzi beharko dugu lurraldea/euskalkia eta beste faktoreen elkarreraginaren azterketa (hala nola euskalkia/lurraldea, egitura eta funtzio sintaktikoen elkarreragina aztertzea). Ikus dezagun zeintzuk diren alderdi honen azterketatik lortzen ditugun emaitzak. Horretarako, lehendabizi, euskalki berdineko hiztun guztien komunztadura gabeko zenbatzaileen erabilera ehunekoetan emango ditugu. Bigarrenik, hiztunek gehienez jota 16 aldiz baimendu dituzte zenbatzaile komunztadura gabeak; hori dela eta, 8 aldiz edo gehiagotan (8 16ren erdia izanik) komunztadura eza baimendu duten hiztunen kopurua adieraziko da (euskalkiaren araberako azpialde bakoitzean); eta azkenik, batez bestekoak aurkeztuko ditugu.

● **Hiztun lapurtarrak**

Corpuseko lapurtarrek (guztira 13) %30,34tan ez dute komunztadura plurala egin. 13 hiztun horietatik 5ek 8 aldiz baino gehiago jo dute forma komunztatu gabeetara. Guztiak alderatuta, 5,4 aldiz ez dute komunztadura pluralik erabili, batez beste.

(49) *Komunztadura eza euskalkiaren arabera*



- ***Hiztun behe-nafarrak***

Behe-nafarrek, lagineko hiztunen talderik handiena, aldakortasuna (+/- komunztadura plurala) erakuts dezaketen perpaus posible guztien artean %26,76tan ez dute komunztadura plurala hautatu; 22 hiztun behe-nafarretatik beste 5ek 8 aldiz baino gehiago jo dute forma komunztatu gabeetara. Corpus guztitatik 4,8 aldiz hautatu dute komunztadura pluralik gabeko estrategia, batez beste.

- ***Hiztun zuberotarrak***

Zuberotarrek %32,22 kasutan forma komunztatu gabeak aukeratu dituzte. Kontuan hartu behar da ez dagoela zuberotarrik estrategia hau inoiz erabili ez duena (hau da, gutxienez kasuren batean erabili dute guztiek estrategia hau). Honetan, alde handia dago beste hiztunekin, badirelako lapurteraz edo behe nafarreraz mintzo diren zenbait hiztun komunztadura gabeko estrategia inoiz aukeratu ez dutenak, pluralezko komunztadura nahitaezkoa izanik beraiantzat. Komunztadura falta sistema zaharra islatzen badu, Txillardegiren ildotik, orduan Zuberoa izango litzateke sistema zahar hau indartsuen gorde duen eremua. Euskalki zuberotarra duten 10 hiztun elkarrizketatu ziren. Hoietatik, 5 hiztunek 8 aldiz baino gehiago jo dute forma komunztatu gabeetara. Batez bestekoetan ere, komunztadura gabeko estrategia gehienetan erabili dutenak zuberotarrak dira: batez bestekoa 7,6 aldiz, alegia.

- ***Sailkatu gabekoak***

Azkenik, aintzat hartu beharko genuke euskalkien arabera sailkatu barik dagoen hiztunen ehuneko erraldoi hori (guztira 14 hiztun, hiztun guztien %23,72). Datuek diotenaren arabera, hiztun horietatik, hamalautik hamaikak euskara bigarren hizkuntza edota bigarren hizkuntza goiztiarra (ikastolan txikitatik jaso) daukate. Talde hau komunztatu gabeko formak gutxien erabiltzen dituen da, izan ere, %18,65tan besterik ez dute komunztadura eza baimendu. Horretaz gain, 14 hiztunetatik 3k bakarrik 8 aldiz baino gehiagotan jo dute forma komunztatu gabeetara, hauen erabileraren batez bestekoa %3,35 izanik.

(50) *Laburbilduz: komunztadura euskalkiaren arabera*

·Laburbilduz:


·Zuberotarrak dira komunztadura gabeko formetara gehien jotzen dutenak (7,6 batez beste). Hitzun bakoitzak gutxienez perpaus batean ez du komunztadura plurala egin.

·Komunztadura plurala gehien-erabiltzen duten hiztunak euskalki bat aitortu ez zaien hiztunak dira; baliteke euskalkirik ez izatea eta ikastolan euskara ikasteak eragina izatea portaera honetan.

·Atal hau bukatzeko arazo metodologiko bat aipatu nahi dugu: berriro ere ondorioak tentuz hartu behar dira, lagineko hiztunen euskalkien artean desoreka numerikoa dagoelako, eta beraz, azpitalde guztiek ez dute euskalkia edo lurraldea berdin islatzen.

2.2.3. Eskolatze, bizilekua eta jabekuntza mota (euskara H1, H2 edo H2g) ²¹

(51) *Mulgiltze eredia vs. Eredua elebiduna Iparraldean*



Aldagai hau

aztertzeko, gogoratu behar dugu Iparraldean euskaraz ikasteko edota bizitzeko baldintzak ez direla edonolakoak. 2017 urtean argitaratu zen (baina 2016ko datuak biltzen dituen) VI.

Inkesta

Soziolinguistikoaren

arabera, 2016an Iparraldean 16 urtetik gorako biztanleetatik 51.200 euskaldunak dira, hau da, Iparraldeko biztanleen %20,5²².

²¹ Hemendik aurrera: H1 = Lehen hizkuntza; H2 = Helduan ikasitako bigarren hizkuntza; H2g = Bigarren hizkuntza goiztiarra. (De Houwer, 2009).

²²Ezaguna denez, kopuru honek gora egiteko arazoak daude estatu frantsesaren legediagatik. Izan ere, Frantziar errepublikako konstituzioaren arabera, hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da (2. art.), nahiz eta gainontzeko hizkuntzak ondare gisa aitortzen diren (75-1 art.).

2. artikulua, 1958ko urriaren 4ko Konstituzioan (Aldaketa, 1998ko abuztuaren 4ko 95-880 Konstituzio Legeko 8. artikuluan) : «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da».

Jakina denez, azken hamarkadetan umeak euskaraz euskaratzeko ardura (ikastolen sarearen bidez) Seaska elkartearen esku geratu da ia ia bere osotasunean, nahiz eta azken urteotan zenbait ikastetxe pribatu edo publiko ere batu diren sistema misto batekin. Halere, gaur egun zenbait ikastetxe publiko edo pribatuek eredu elebiduna badute ere, euskaraz hezteko aukera oraindik ez dago guztiz eskuragarri edo ziurtatuta erakunde publikoetan (Costas González, 2003: 157).

Euskararen Adierazle Sistemaren arabera, (Euskal Herri osoko euskararen egoera sozialaren berri ematen duen adierazle sorta) 2017-2018 ikasturtean Iparraldeko eskolatzeko aroan zeuden ume eta gazteen %7 matrikulatu zen murgiltze-ereduan, %19,4k euskaraz eta frantsesez ikasi zuen, eta %73,6k osoki frantsesez. Nahiz eta 2013-2014 kurtsotik murgiltze-ereduko tasek gora egin, nabaria da izugarritzko desproporzioa dagoela hiru sistemen artean (murgiltze-sistema, elebiduna, eta frantsesa). Kontuan harturik Iparraldean euskaraz jabetzea ez dagoela nahi bezain ziurtatua, gure ustez ikerketa honetatik ateratako emaitzak aztertze orduan euskaratze prozesuak berebiziko garrantzia du.

• ***Eskolatzeko: frantsesez, euskaraz, edo bietan***

Norantz-ek elkarriketatutako hiztunen artean, gazteek bakarrik izan dute aukera murgiltze-ereduan eskolatuak izateko. +70 edota 40-60 urte tartekoek frantsesez ikasi (behar izan) dute. Hala ere, gazte guztiek ez dute murgiltze ereduan ikasi. Bada, 59 hiztunetatik, 38k frantsesez ikasi dute eta hauetarik 11 hiztun -30 tartekoak dira. Gainontzeko -30 urtekoen artean, 17k, alegia, murgiltze ereduan ikasi dute, eta 4k eredu elebidunean, edota euskaraz eta gero frantsesez. Euskaratze motak eragina izan duen ala ez aztertze, eta honen araberrako hiztun mota ezberdinak beraien artean erkatu ahal izateko, murgiltze-ereduan ikasteko aukera izan dutenen tartea hartu dugu lehendabizi: hau da, ikastolan ikasi duten gazteen multzoa. Goian emandako espazio eta denbora mugengatik, azterketa orokor bat egitera mugatuko gara.

75-1. artikulua, Konstituzioan sartua 2008ko uztailaren 23ko 2008-724. Konstituzio Legearen bidez, Frantziako eskualde hizkuntzei buruz, V. Errepublikaren erakundeak modernizatzen dituen: «Eskualde hizkuntzak Frantziaren ondarea dira».

Frantziar konstituzioko 2. eta 75-1. Artikuluak (Itzulpena Euskararen adierazle Sistematik)

Hori gutxi balitz, 2015eko urriaren hamabostean Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna sinatzeari ukatu zion frantziar senatuak. Hau guztia dela eta, administrazioko edota bestelako zerbitzu asko (osasuna, adibidez) ez dira euskaraz eskaintzen, eta administrazioarekiko trataturik gehiena frantsesez egin behar izaten da.

Eskolatztea	Hiztun kopurua	-KMZ
a) Frantsesez (-30koak soilik)	11 hiztun (-30)	3 batez beste
b) Frantsesez (adin guztiak)	38 hiztun (11 gazte (-30) + 27 helduak (40-60 + (+70) barne)	6,3 batez beste
Eusk + Frant	4 hiztun (-30)	1,5 batez beste
Murgiltze eredua	17 hiztun (-30)	3,1 batez beste

Datuak aztertuz ez dirudi euskara hutsean edo frantsesez hutsean eskolatzek eraginik duenik, ez behintzat gazteen artean, hautatutako komunztadura motan, ezen batez bestekoek ez baitute haien arteko alde handirik erakusten. Halere, alde nabaria dago euskaraz eta frantsesez eskolatuak izan diren hiztunekin (1,5 vs. 3,1 edo 3). Nagusiak azterketan sartuz gero, ikusi da frantsesez eskolatuek euskaraz eskolatuak izan direnek baino batez besteko 3 puntu gehiago lortu dituztela, baina ez dago argi horren eragilea eskolatzeko eredua, transmisio modua edo adina den. Gazteen tartea hartuz, batez bestekorik altuena murgiltze ereduak daukate, baina bakarrik 0,1 batengatik, beraz, ez dugu uste aldagai hau esanguratsua denik.

• *Jabekuntza mota*

Aztertzen ari garen fenomenoaren jabekuntza motak eragindua izan den aztertu behar dugu. Baina helburu honetan beste arazo kuantitatibo batekin egin dugu topo; bada, hiztunen %78,2k euskara dutela ama-hizkuntza, beraz, datu hauetatik lor genitzakeen emaitzak ez dira zeharo esanguratsuak izango, ez dagoelako besteekiko orekarik, gehiengo izugarri handia direlako euskara H1 dutenak. (Euskara ama hizkuntza gisa vs. bigarren hizkuntza gisa sailkapena egiteko De Houwer-ek (2009) proposaturikoa erabili da).

Beste arazo bat da, berriz ere, adina izan daitekeela aldakortasuna eragiten duen faktorea. Bada, 2017ko VI. *Inkesta Soziolinguistikoa* azaldu zen bezala, Iparraldean oso gutxiri transmititzen zaio euskara H1 gisa, hortaz, nahiz eta gure hiztunen gehiengoaren ama-hizkuntza euskara izan, inguruak eragin nabarmen daukalakoan gaude. Bada, Iparraldeko 16 urtetik gorakoen artean %21,7ren H1 euskara da, eta

multzo horretatik %15,9k etxean euskaraz besterik ez du jaso (hau da, etxean “murgiltze” sistema batean bizi izan da, eta beraz H1-ko multzoan sailkatzen dira); beste %5,8k euskara eta erdara hazi da etxean (2H1). Gainontzekoek, %78,2k, alegia, erdara bakarrik izan du komunikazio hizkuntza etxean. Horretaz gain, euskara H1 soilik (frantsesarekin batera izan gabe) dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoek erakutsi dute (%25,5), eta biztanleriaren adina jaitsi ahala, euskara H1 gisaren etxeko transmisioak ere behera egiten du. Laburbilduz, nahiz eta gure hiztunen gehiengoaren ama-hizkuntza euskara izan, Iparraldeko gazteengan ohikoa ez denez euskara H1 izatea, baliteke harreman gehienak frantsesez sortzea eta horrek hizkuntzan eragina izatea.; dena den, hipotesia besterik ez da.

• ***Jabekuntza: euskara H1 eta 2H1***

59 hiztunetatik, 47k dute euskara ama hizkuntza gisa; horietarik 43k dute euskara ama-hizkuntza bakarra (H1) eta beste 4k ere, frantsesarekin batera (2H1). Euskara H1 duten hiztunek corpuseko batez beste 5,4 esalditan erabili dituzte komunztadura gabeko formak –hots, 6 esalditan baino gutxiagotan ez dute komunztadura plurala hautatu–. Bestetik, euskara 2H1 dutenek batez beste 4 esalditan erakutsi dute joera hori. Honekin guztiarekin, azpimarratu nahiko genuke H1 euskara duten gehiengo handi batek (%58,13) +70 eta 40-60 adin tartekoak direla, eta ez gazteak. Azkenik, E&E (2009) gogora ekarriz, aitortu beharko genuke subjektu ergatiboekin komunztadura plurala egin ez duten hiztunen artean (8 gutzira), 6k euskara H1 dutela eta 2k ez. Beraz, literaturan emandako orokorpenaren kontra, badaude euskara ama-hizkuntza duten hiztunak subjektu ergatiboekin ere forma pluralak ez erabiltzea zilegiztatzen dutenak (ikus (43) taula). Hauen artean, murgiltze eredukoak, zein frantsesez ikasi dutenak daude.

• ***Jabekuntza: euskara H2g***

Corpuseko hiztunetatik zortzik txikitatik ikasi dute euskara ikastolan (H2goiztiarra), eta beraz, mota honetako hiztun guztiek -30 urte dituzte. Horiek batez beste 2,12 aldiz aukeratu dituzte komunztadurarik gabeko formak. Erabilera hain baxua izatearen jatorria frantsesa 6ren ama-hizkuntza izatea izan liteke, hala ere, ez dago hipotesi hau bestelako ebidentziarekin bermatzerik. Gainera, emaitza hauek tentuz hartu behar dira. H2g taldeko hiztun batek 14 aldiz egiteak (arestian aipatutako GORBA-k) zenbaki hau gora egitea eragin baitu; izan ere, H2g taldeko gainontzeko hiztunek ia ez

dute ia inoiz komunztadura gabeko estrategia hautatu —corpus osoan zehar behin bakarrik, gehienez jota. 14 aldiz egin duen gazte honek euskara H2g dauka, baserrikoa da eta ez zaio euskalkirik esleitu.

• **Jabekuntza: euskara H2**

Azkenik, hiztun guztietatik euskara beste lau hiztunen bigarren hizkuntza da (2H). Hiztun hauek batez besteko 6,75 aldiz jo dute komunztadura gabeko formetara. Hori kontuan izanik, badirudi euskara H2 dutenak komunztadura plurala gutxien egiten dutenak direla; hala ere, hiztun hauek lau besterik ez dira, eta horietako batek (EHI-k, jada aipatua) 13 aldiz egiteak estatistikak gora egitea ekarri du. Hiztun hori kenduta batez bestekoa 4,6-koa da, beraz, 2H1 eta H1-ekoen tartean kokatuko genuke talde hau. Egia da arrazoia euskaltegietan didaktika tradizionalago bat erabiltzearekin lotuta egotea, euskaltegietan arau gordetzailleak ikasi dituztelako, frantsesetik gehiago aldentzen dena euskararen gramatikaren berezko tasuna delakoan alegia; baina horretaz gain, ikasketa arazoa ere izan liteke, eta ez komunztadura falta loturik egotea ez zenbatzaile ahul lausoen ezaugarriekin, baizik eta jabekuntzarekin loturiko bestelako arazoekin. Edozein hipotesi egiaztatzeko datu gehiago beharko genituzke. Gainera gogoan izan multzo honetan ere datuak desorekatuta daudela, hiztun batek biltzen dituelako aztertzen ari garen fenomenoaren adibide gehien.

• **Bizilekua: baserria, hiria, hirixka**

Goian aipatutako faktoreez gain, hiztunen bizilekua ere aztertu dugu. Gure hiztunak baserrian, hirietan (Miarritz-Angelu-Baiona ingurua) edo hirixketan bizi dira. 59 hiztunetatik, 26 baserrietan bizi dira, 18 hirigunetan, eta 15 hirixketan²³. Baserrietan bizi direnek batez beste 5,7 esalditan ez dute komunztadura plurala egin, hirietakoek batez besteko 5 esalditan (horietako +40 urtetako bi behe-nafarrek 13 aldiz egin dute) eta hirixketakoek batez besteko 3 esalditan (horietako batek, -30 urtetako lapurtarrak, 10 aldiz egin du). Hau da, baserrietan bizi direnek gehiagotan jotzen dute komunzta gabeko formetara, baina hiritarrekin konparatuz gero ez dago bi taldeen artean alde handirik. Bestetik, corpus guztietatik 7tan edo gehiagotan komunztadura plurala egin ez dutenak harturik, hau da, 20 hiztun, ikusi da 20 horietatik 12 baserritarrak direla, beraz, haiek dira forma komunzta gabeak erabiltzeko joera handien erakusten dutenak.

²³ Hau inkesta egin zeneko egoera da. Baliteke hori baino lehen beste eremu batean bizi izana.

Meyerhoff-en (2006) hitzetan, eskualde jakinetako muturreko (edo kontserbatzaileztat hartzen diren) aldaerak gehien erabiltzen dituztenak antzinako bizimodu ikonikoetara lotura handiagoa izan ohi duten hiztunak dira. Walt Wolfram (*apud.* Meyerhoff, 2006) eta bere lankideek azaldu zutenaren arabera, Ocracoke-ko (North Carolina, AEB) irla batean eskualdeko aldaerarik muturrekoena topatu zuten, behar tradizionalaz (arrantza, kasu), enkargatzen ziren gizonen hizkeran. Gizon hauetarik batek zenbait aldaera nabarmen kontzienteki erabiltzen zituen noizbehinka, ekintza tradizionalekin erlazionatutako balio soziala azpimarratzeko (Schilling-Estes 1998a *apud.* Meyerhoff, 2006). Beste era batera esanda, sare sozialek eta gizabanakoen gizarte-ekintza ez-linguistikoekiko konpromisoak lagun diezagukete abian den hizkuntza-aldaketaren aitzindariak eta jarraitzaileak identifikatzen (Meyerhoff, 2006: 199). Hau da, gazteak eta hiritarrak izango lirateke aitzindariak, bizimodu tradizionalera gutxien lotuta daudenak, alegia.

Hau gurera ekarrita, baserri eremuetako hiztunek aukera gehiago dituzte bizimodu tradizionalarekiko atxikimendu handiagoa izateko, eta horrekin batera, hizkera kontserbadoreago bat gordetzeko. Bada, datuek adierazi bezala, badirudi baserrian bizi direnak dira forma komuntadura gabeak erabiltzeko joera handien daukatenak direla, beraz baliteke hau erabilera zaharrarekin loturik egotea. Hala ere, gogora dezagun baserriarren eta hiritarren arteko tartea ez dela oso esanguratsua, 0,7 puntutako besterik ez, beraz, ezin genezake esan hiriak erabateko eragin berriztatzailea duenik landa-guneekin konparatuz; beste barik, baserri eremukoak gordetzaileenak direla.

·Laburbilduz:

i) Behin baino gehiagotan esan bezala, emaitzak eta ondorioak tentuz hartu behar badira ere, komunztadura plurala gutxien erabiltzen dutenak, helduak kontuan izanda, frantsesez ikasitakoak eta euskara H2 dutenak izango lirateke. Hala ere, azken talde hau ez da oso esanguratsua EHI hiztuna alde batera utziko bagenu bestelako emaitzak lortuko genituzkeelako. Beraz, ikasketa metodologia tradizionalarekin lotura izan badezake ere, ez dugu datu hau oso aintzat hartuko. Beste muturrari helduz, helduak kontuan hartuko ez bagenu, oraindik gutxien erabiltzen dutenak frantsesez ikasi duten gazteak izango lirateke, baina bakarrik bereiziko lituzke 0,1-ek murgiltze ereduak ikasi dutenengandik (3,27 vs. 3,17 batez bestekoak). Bizilekuari dagokionez, baserritarrak lirateke gutxien komunztatu dutenak, baina gogoratuz, hiritarrekiko ez daukatela hainbesteko ezberdintasunik (0,7 puntu).

ii) Komunztadura plurala gehien erabiltzen dutenak: eredu elebidunean edota murgiltze ereduak ikasi dutenak dira, hau da, euskara H2g dutenak. Bizilekuari arreta jarritz, hirixketakoak dira pluralik gabeko strategiara gehien jo dutenak.

·Arazoak: Baliteke eragileak adina izatea eta ez eskolatzeko edo transmisioa eta desoreka dago eskolatzeko-ereduen artean eta transmisio moten artean.

·Arazoak: H2-ren kasuan ikasketa arazoa izan liteke ere.

·E&E (2009)-ren aurka, badira hiztunak subjektu ergatiboarekin komunztadurarik egin ez dutenen artean, eta hiztun hauen artean gehiengoak euskara H1 du (+70 urtekoak talde honetan sartzen ez badira ere).

2.2.4. IS-ren funtzioaren arabera

Irakurleak gogoan izango duenez, E&E-k (2009) espresuki aipatzen dute zenbatzaile ahul lausoek modifikatzen duten IS-k duen funtzioa sintaktikoak (hau da, subjektua, osagarri zuzena ala zehar osagarria den) eragin zuzena duela aztertzen ari garen fenomenoan, eta horretan oinarrituz euskara hiru sistema ezberdinetan sailkatzen dute, hizkeren artean dagoen aldakortasunaren berri emateko (ik. goian (43) taula).

Hiru sistema hauetan (Mendebalde-erdialdekoan, Trantsiziokoan eta Zuberoakoan) posiblea da zenbaki-komunztadura eragitea osagarri zuzenekin eta subjektu absolutiboekin (hau da, kasu absolutiboa duten argumentuekin), baina aldakortasuna aurkitzen dugu subjektu ergatibo eta datibodun argumentuekin. E&E-ren arabera, subjektu ergatiboek nahitaez eskatzen dute komunztadura plurala zenbatzaile ahul lauso batez lagundurik agertzen direnean. Osagarri datiboaren kasuan ere aldakortasuna dago, eta Mendebalde-erdialdeko eta Trantsizioko barietateetan posiblea

bada ere argumentu hauek komunztadura pluralik gabe agertzea, hau ezinezkoa omen da Zuberoako sisteman. Gorago esan bezala, *Norantz*-ek ez digu aukera ematen osagarri datiboari buruzko datuak egiaztatzeko, ez baitu argumentu mota hau bere galdetegian kontuan hartu, baina aukera paregabea eskaintzen digu subjektuak eta osagarri zuzenak bere artean erkatzeko, batetik, eta argumentu absolutibo guztiak berdin portatzen diren aztertzeko, bestetik.

E&E-k proposatutako sailkapenaren arabera, espero duguna da: a) lagin honetan subjektu ergatiboak derrigorrezko zenbaki komunztadura eragin behar izatea, eta b) sintagma absolutiboekin (subjektu zein osagarriarekin), aldiz, komunztadura “hautazkoa” izatea.

● **Funtzioa: objektu zuzena (absolutiboa)**

Gure lagina funtzioaren arabera aztertzen dugunean bada oso nabaria izan den ezaugarri bat: objektu zuzena dela komunztadura gabeko formak gehien onartzen dituen (ikus III. eranskina, C87-C92), objektu zuzenen agerpen guztien %54,65 komunztadura gabekoak baitira. Osagarri zuzenaren funtzioaren barruan zenbatzaileei erreparatuz gero, *apur* da komunztadura gabeko forma gehien zilegiztatzen dituen zenbatzailea (%100, baina kontuan gorago azaldutako arazoa, bada, *apur* corpus osoan, guztira 28 aldiz bakarrik agertzen dela), hurrenez *sobera* (%62,88), gero *guti* (%53,84) eta azkenik %50-tan egin dutenak: *anitz* eta *gehiegi* (ik. III. eranskina).

● **Funtzioa: subjektua**

a) **Subjektu absolutiboa**

Osagarri zuzenari jarraiki, subjektu absolutiboa dator (ikus C79-C86), subjektua absolutiboa denean komunztadura ez da gorde %34,70ko kasuetan —hau da, kasuen heren batean, zifra ez bereziki altua osagarri zuzenek erakusten duten jarrerarekin erkatuz gero (%54,65)—. Zenbatzaileen artean, *apur*²⁴ da komunztadura plurala gutxien eskatu duen zenbatzailea (%72,72 agerraldietan komunztadurarik gabe agertzen da), hurrenez *guti* (%42,71) eta gero *anitz* (%39,6). Oro har, (eta *apur* alde batera utzita) esan dezakegu IS subjektu absolutiboa denean, kasurik gehienetan zenbatzaileek zenbaki komunztadura eragiten dutela, nahiz eta komunztadura falta ere posiblea den oso zifra altuetan.

²⁴ Kontuan har beza aurreko atalean aipaturiko arazo metodologikoa, hau da, *apur*-en agerraldi baxua corpus osoan, 28 aldiz.

b) Subjektuak egitura existentzialetan

Egitura iragangaitzen subjektu guztiak ez dira berdin portatzen. Hortaz, egitura existentzialak aztertzen baditugu (ikus C85, C86, frantsesez *il y a* egituraren bidez ematen direnak), erdiak zenbaki-komunztadura plurala eskatzen badu ere, beste erdiak ez du komunztadurarik eragiten. Beste hizkuntza askotan²⁵ egitura hau ematerakoan aldakortasuna dago, beraz, ez zaigu harrigarri egiten euskaraz ere gerta ahal izatea.

Alde honetatik, *apur*, *guti anitz* eta *asko* zenbatzaileek perpaus existentzialetan eta beste egitura sintaktiko batzuetan duten jarrerarekin erkatzen badugu, argi ikusten da egitura existentzialetan komunztatu gabe maizago aurkitzen ditugula beste egitura sintaktikoetan baino. Adibidez, lagin honetan C85 eta C86 esaldietan komunztadura plurala C79 eta C80 esaldietan (existentzialak ez direnak) baino askoz gutxiago egin dutela ikus dezakegu (*guti*-ren kasuan 25,86% (C80) vs. 52,94% (C85) eta *apur*-enean 50% (C80) vs. 100% (C85); bestetik, *anitz*-i dagokionez, 16,66% (C79) vs. 57,69% (C86) eta azkenik, *asko*-ren erabileran ez dago aldaketarik, 25% (C79) vs. 25% (C86)).

Kod.	Zenbatzaileak eta perpausak ²⁶	Funtzioa	-kmz	(%)	+kmz	(%)
C85	7) <i>Il y a peu d'étudiants dans la rue</i> ·Arrüan etüdian <u>aphür</u> düzü (GERBAR)	Subj. ABS	5	%100	0	%0
	- ·Ikasle <u>guti</u> da karrikan (XALAI) ·Ikasle <u>gutti</u> badira karrikan (KADO)		27	%52,94	24	%47,05
C86	8) <i>Il y a beaucoup de places vides dans ce train</i> ·Trein untan <u>anitz</u> toki uts bada (MAIHE) ·Toki <u>anitz</u> badie libro treñ untan (JEDON)	Subj. ABS	30	%57,69	22	%42,3
	·Toki libre <u>asko</u> dago tren onetan (XAAN) ·Toki libro <u>asko</u> badira trein ortan (JOSA)		2	%25	6	%75

c) Zuketa alokutiboak eraginik al du?

Aipatutako C85 eta C86 bi perpaus hauetan zortzi hiztunek zuketa alokutiboan eman dituzte perpausok eta horietatik zazpi ez dute pluralez komunztatu. Zuketa

²⁵ Esate baterako, gaztelera estandarrean nahiz eta *había muchas niñas jugando en el parque* esan, hizkeretan *habían* aditza pluralez komunztatuta topatzea ohikoa da egunerokoan, subjektua berez plurala delako; bestetik ingelesez, *there were many women in the bathroom* perpausa (pluralean komunztatuta), *there was many women in the bathroom* bezain usua eta zuzena da. Katalanez, ostera, erregistro informaletan pluralez komunztatu ohi da subjektua 3. pertsona plurala izatekotan (nahiz eta gramatika askok ontzat ez eman), eta hori dela eta katalanezko hiztunen gazteleran ohikoa da hura topatzea: *hi havia una noia* (3p-sg-irag.) 'Bazen neska bat' vs. *hi havien dues noies* (3p-plur-irag.) 'Baziren bi neska'. Norantz-en datu-basean, badago partitiboa erabiltzen duen hiztunen bar, adibidez PEOLO-k emandako esaldian : *Lekhü hütsik hanitx batüzü tren hortan.*

²⁶ Datu hauek emateko, taulan ageri ez diren zenbatzaileekin egindako esaldiak baztertu dira.

tratamendu alokutiboa denez gero, hiztunak kontuan hartu behar du entzulea morfologikoki, eta kasu honetan, trataera neutralean erabiliko lukeen NOR saileko forma erabili beharrean, NOR-NORK-eko paradigmatara jo behar du. Hori dela eta, trataera neutralean subjektu (ABS.) zena, morfologikoki objektu zuzen (ABS.) izatera pasatzen da.

(53) (i) Trataera neutroan:

Leku huts anitz bada_(hura) treiñ ortan. (C86, XLEAHA)

(ii) Zuketa alokutiboan:

Lekhü hüts hanitx badüzü_(zuk-hura) treiñ huntan. (C86, PIMUS)

Arestian ikusi dugun bezala, objektu zuzenak dira komunztadura plurala ez erabiltzeko joerarik altuena erakusten dutenak; beraz, zuketan ematen den aldaketa kontuan hartuz (NOR > NOR-NORK), interesgarria iruditu zaigu plantatzea ea loturarik egon zitekeen zuketa alokutiboko formak erabiltzeko estrategiaren eta komunztadura plurala ez eragiteko joeraren artean. Fenomeno hau ez da bi esaldi hauen kontua bakarrik, baizik eta corpus guztiak zehar zuketa alokutiboa erabili den ia perpaus guztietan ez da komunztadura plurala eragin, beraz, harreman bat duelakoan gaude. Lagin honek ez digu aukera nahiko ematen galdera hau erantzuteko, baina etorkizunean kontuan hartzeko faktore bat iruditzen zaigu.

d) Subjektu ergatiboa

Azkenik, corpuseko azken sei esaldiak (C93-C98), subjektu ergatiboari dagozkio. E&E-ren (2009) lanari jarraituz, ez genuke esperoko Iparraldeko hiztunek ergatiboarekin komunztadura falta zilegizatzea. Baina I. eranskinean ikusi dugun bezala, % 11k aukera hau onartzen du. Hona hemen adibide batzuk:

(54) a. *Aski haurrek astokei erran dizi.* (40-60, zuberotarra, euskara H1)

b. *Haur geiegik goxokiak jaten ditu.* (40-60, behe-nafarra, euskara H1)

c. *Haur soberak goxokiak jaten ditu.* (-30, lapurtarra, euskara H1)

Hala ere, esan behar da, espero genuenaren kontra estrategia hau ergatiboarekin posible bada ere, egia dela kasu honetan komunztadura faltak izugarritzko beherakada egiten duela bestelako kasuekin erkatzen dugunean: izan ere, corpusean zehar hiztunek emandako gainerako perpausetan hiztunen %20-70k komunztadurarik gabeko formak zilegizatzen zituzten bitartean, azken 6 perpaus hauetan gehienez %11-k bakarrik

aukeratu dute komunztadura ez egitea; hau da, ergatiboa ageri diren perpausetan komunztadurarik egiten ez duten hiztunak Otik 7ra izango dira, baina ez gehiago. Hiztun hauen ezaugarriak honako hauek dira:

(55) *Subjektu ergatiboarekin komunztadura plurala egiten ez duten hiztunen datuak*

Hiztuna	Kmz (-)	Adina	Bizilekua	Euskara	Euskalkia	Eskolatzea
YOSAN ²⁷	C93-98	40-60	Baserria	H1 ²⁸	Zuberera	Frantsesez
MOBA	C95	40-60	Hiria	H1	Behe-nafarrera	Frantsesez
EHI ²⁹	C93,C95, C98	40-60	Hiria	2H ³⁰	-	Frantsesez
IOSEN	C95	-30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
MAIAZ	C95	-30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
GORBA ³¹	C93,C95	-30	Baserria	H2g ³²	-	Euskaraz
ALAZI	C95	-30	Hiria	H1	Lapurtera	Eusk + fran
MAILA	C94	-30	Baserria	2H1 ³³	Zuberera	Frantsesez

Norantz-eko lagina txikia denez ezin daiteke behin-betiko ondoriorik atera, baina interesgarria da ikustea gaur egun zenbait hiztunek komunztadura falta zilegiztatzen dutela subjektu ergatiboekin ere, aurreko lanetan (eta bereziki E&E-k) esaten dutenaren kontra). Ditugun datuetan oinarrituz, euskalkien artean lapurtera eta zuberera nabarmentzen dira ezaugarri honetan, baina behe-nafarreraren presentziak diosku ezaugarri hau Iparralde osoko kontua izan daitekeela, eta ez euskalkiari zor zaion ezer. Bi hiztun alde batera utzirik, beste guztien ama hizkuntza euskara dela kontuan hartzen badugu, honek bultzatuko gintuen pentsatzera agian Mendebaldeko sisteman bezala, oraintsu arte posiblea izan dela subjektu ergatiboarekin komunztadura falta baimentzea. Halere, estrategia hau baimendu duen hiztunen adinari arreta jarriz gero, guztiak gazteak (-30) edota 40-60 urtekoak direla ikusten dugu; ez dugu +70 hiztunen artean horrelako esaldirik aurkitu.

Edozein kasutan ere, aipagarria da subjektu ergatiboak subjektu absolutiboekin eta osagarri absolutiboekin erkatzen baditugu, nabari da komunztadura falta askoz kasu

²⁷ Azken 6 esaldietan (ergatibodunak direnak) kasu guztiak eman ditu komunztadurarik gabe.

²⁸ Lehenengo hizkuntza.

²⁹ Azken 6 esaldietatik (ergatibodunak direnak) 4 kasutan eman ditu komunztadurarik gabe.

³⁰ Bigarren hizkuntza, hau da, helduan ikasia.

³¹ Azken 6 esaldietatik (ergatibodunak direnak) 2 kasutan eman ditu komunztadurarik gabe.

³² Bigarren hizkuntza goiztiarra (De Houwer, 2009); kasu honetan, murgiltze ereduuan ikasia.

³³ Lehenengo hizkuntza, beste batekin batera (De Houwer, 2009); kasu honetan, euskara eta frantsesa.

gutxiagoetan ematen dela. Alde horretatik, E&E-k esandakoaren kontra, egia bada ere Trantsizioko eta Zuberoako sistemetan subjektu ergatiboekin komunztadura falta posiblea dela, aitortu behar da egile hauek esan bezala subjektu ergatiboak argi eta garbi aldentzen direla subjektu absolutibo eta osagarri zuzenenetatik.

(56) *Laburbilduz: komunztadura IS-aren funtzioaren arabera*

·Laburbilduz:

- i) IS-aren funtzioak eragina du zenbaki-komunztaduran.
- ii) Komunztadura plurala gutxien eragiten duen funtzioa osagarri zuzena da. Joera hau hobekien erakusten duen zenbatzailea *apur* da: *apur* osagarri zuzena denean bere agerraldi guztietan komunztadura pluralik gabe agertzen da (%100) (vs. % 72'72 subjektu absolutiboa denean eta %33'33 subjektu ergatiboa denean).
- iii) Literaturan esandakoaren kontra, Trantsizioko eta Zuberoako sistemetan ere komunztaduragabeko zenbatzaileak posibleak dira subjektu ergatiboekin. (Lagin honetan 17 perpausetan aurkitu dugu estrategia hau. Iparralde osoko hiztunek erakutsitako joera da; -30 edo 40-60 urteko hiztunak dira eta ez dago +70 urteko hiztunik).

Hala ere, egia da zenbatzaile komunztadura gabek askoz gutxiago agertzen direla subjektu ergatiboekin, subjektu absolutibo eta osagarri zuzenekin baino. Hemen ere, zenbatzaileen arteko aldeak aurkitzen ditugu: *apur* da komunztadura gabeko estrategia hobekien onartzen duen zenbatzailea: %33,33 (6 agerraldietatik 2tan). Agerraldi kopuruak kontuan hartuz ostera, *sobera*, izango litzateke, 6 aldiz (baina 50etik) agertu baita komunztadura ezarekin.

2.2.5 Zenbatzaileen arabera

Aurreko ataletan azaldu bezala, zenbaki-komunztaduran zenbatzaileen arteko aldakortasuna aurkitzen dugu, zenbatzaileen izaeraren araberrakoa dena. Hau kontuan hartuta, lagina aztertzeko orduan zenbatzaileen araberrako eragina aztertzeko, alde batetik aldizkatzea erakusten duten zenbatzaile lausoen artean hiztunek gehien erabili dituzten zenbatzaileak hartu ditugu eta zenbatzaile hauek erakutsitako jokabidearen³⁴ araberrako sailkapena egin dugu. Hau da, frantseserako esaldi berrak itzultzerakoan hiztun guztiek euskarazko esaldian erabilitako zenbatzaile erabilienak bere aldetik aztertu ditugu. Zenbatzaile horiek honako hauek dira: *anitz*, *asko*, *guti*, *apur*, *sobera*, *gehiegi*,

³⁴ Oso bakanak ziren zenbatzaileak (edo zenbatzaileen funtzioa hartzen duten beste elementu batzuk), (hala nola *franko*, *paketa*, *ausarki*, *biziki*, etab.), ez ditugu aintzat hartu, ez zirelako nahiko aldiz agertzen haietan oinarrituta inolako ondorioetara heltzeko.

aski, oro, guzi, batzuk eta *zenbait*. Zenbatzaile bakoitzaren agerraldi guztietatik komunztadura plurala zenbatetan ez den egin ikusi da, eta horren arabera erabileraren ehunekoak eta hiztun taldeen batez besteak lortu ditugu (esaterako, lapurtarren kolektiboa batez besteko zenbat aldiz ez duten komunztadura plurala egin). Honetaz gain, zenbatzailea modifikatzen duen IS-ak duen funtzioa ere hartu dugu kontuan (ikus *II. eranskina*). Komunztadura plurala gutxien eragin dutenetatik gehien eragin dutenera antolatu ditugu zenbatzaileok:

- **APUR** (C80, C85, C88, C91, C94):

Zenbatzaile hau ez da ohiko “apur bat”, bada, corpus honetan ikusi dugu Zuberoako hiztunek “apur” erabiltzen dutela “gutxi” izango balitz bezala; baliteke zubererazko berrikuntza izatea. Zuberotar guztietatik (10 hiztun) adin tarte guztietako 6 hiztunek erabiltzen dute guztira. Subjektu (absolutibo, zein ergatibo) eta objektu zuzen funtzioa duten IS-ak modifikatzen agertzen da, eta kasu guzti hauetan erakusten du aldakortasuna. Komunztadura ez egiteko joera handien daukan zenbatzailea *apur* izan da, agerpen guztietatik %75-etan komunztadura eza eragin baitu (ik *II. eranskina*).

(56) *Haur aphür hil dia gisa hortaz* (C80, “*Namau*”, Zub., -30)

(57) *Libüu aphür iosi dit* (C88, “*Gerbar*”, Zub., +70)

(58) *Haur aphürrek ekharri titzi ben libriak* (C94, “*Yosan*”, Zub., 40-60)

Funtzioei arreta jarritz, gainera, ikus dezakegu zenbatzaileak modifikatzen duen IS-ak OZ³⁵ funtzioa betetzen duen guztietan (11 guztira) aditz jokatua komunztadurarik gabe agertzen dela (%100). Subjektu funtzioaren kasuan, subjektu ergatiboak, alde batetik, eta subjektu absolutiboak, bestetik, aztertu ditugu, joera ezberdinak agertzen dituztelako. Alde batetik, zenbatzaileak modifikatzen duen IS subjektu absolutibo gisa agertzen denean (ABS kasuarekin, *C80, C85*) hiztunek %72,72-ko kasuetan ez dute komunztadura plurala hautatu; hau da, komunztadurarik gabe agertzen dira. Subjektu ergatibo gisa agertu den kasuetan, aldiz, portzentaia askoz apalagoa zen: agerpen guztietatik %33,33-ko kasuetan bakarrik baimendu dute komunztadura eza. Esan behar da corpora horren txikia denez, multzo honetan 2 agerraldi besterik ez direla izan, *C94* perpausaren kasuan. Bi agerraldi horiek *YOSAN* eta *MAILA* hiztunei zori dizkiegu; bi hiztunek partekatzen duten ezaugarria zuberotar baserritarrak izatea da. Irakurleak

³⁵ Objektu zuzena (ABS kasua)

gogoan izango duenez, E&E-k (2009) emandako deskribapenean egile hauek (eta beraien aurretik Coyos-ek (1999) ere) esaten dute Trantsiziozko eta Zuberoako sistemetan, (hau da, Ekialdeko sistemetan oro har), derrigorrezkoa dela komunztadura plurala egitea zenbatzaileak modifikatzen duen IS subjektu ergatiboa denean. Alde horretatik, deigarria da laginean gauzaturik ikusten dugun estrategia hau aurkitzea, ez baikenuen horrelakorik espero. Esan bezala lagina oso txikia bada ere, eta alde horretatik ondorioak tentuz hartu behar badira ere, (ezaugarri soziolinguistikoen ikuspuntutik euskara ama hizkuntza gisa ikasi duten) bi hiztunek posibilitate hau baimentzen dutela ikusteak pentsarazi egiten digu literaturan emandako orokorpenak berriro aztertu behar ditugula bere egokitasuna ebaluatzeko.

Hiztuna	Kmz sg	Adina	Bizilekua	Euskara	Euskalkia	Eskolatzea
“Yosan” ³⁶	C93-98	40-60	Baserria	H1 ³⁷	zuberera	Frantsesez
“Maila”	C95	-30	Baserri	2H1 ³⁸	zuberera	frantsesez

(59) “Apur” zenbatzailearekin eta IS subjektu ergatiboa denean (-) kmz eragiten duten hiztunen ezaugarri soziolinguistikoak

• **SOBERA** (C81, C89, C92, C95):

Sobera zenbatzailea komunztadura gabeko adibideak ditugu subjektu ergatiboekin, subjektu absolutiboekin eta osagarri zuzenekin:

(60) *Sobera haur lerratu da eskaler ortan* (C81, “Jabi”, BN., +70)

(61) *Sobea sagar jan dit* (C89, “Pimus”, Zub., 40-60)

(62) *Aur soberak goxokiak jaten ditu* (C95, “Maiaz”, Lap., -30)

OZ funtzioan, agerpen guztietatik %62,88an komunztadurarik gabekoak dira (hau da, 97 objektu zuzenetatik 61 komunztadura gabeak). Subjektu funtzioan ehunekoak oso bestelakoak dira: forma komunztadura gabeak %20 dira subjektu absolutiboen kasuan (50etik 10), eta %13,72 (50en artean guztira 6 agerraldi) subjektu ergatiboekin. Argi dago, beraz, IS-aren funtzioak eragin zuzena duela zenbatzaile komunztaduradunak edo forma komunztadura gabeak aukeratzeko orduan, objektu zuzenekin askoz gehiagotan aurkitzen baititugu forma komunztadura gabeak subjektuekin baino. Eta subjektuetan ere argumentu hauek absolutiboak ala ergatiboak

³⁶ Guztira 6 aldiz sortu ditu komunztadura gabeko esaldiak.

³⁷ Lehenengo hizkuntza.

³⁸ Lehenengo hizkuntza, beste batekin batera (De Houwer, 2009); kasu honetan, euskara eta frantsesa.

izateak eragina zuzena duela dirudi, maizago ikusten dugula komunztadura eza subjektu absolutiboekin ergatiboekin baino. Bukatzeko, aurreko zenbatzailearen kasuan bezala, aipatzekoa da deskribapenetan ezinezkotzat jotzen bada ere, badirudiela posiblea dela zenbatzaile komunztadura gabeak aurkitzea subjektu ergatiboekin: kasu honetan gainera, aipatu ditugun 6 adibide ditugu (50 direnetatik).

Sei agerraldi hauetan komunztadura egin ez duten hiztunak euren artean nahiko ezberdinak dira soziolinguistikoki; komunean daukaten ezaugarri bakarrak -30 edo 40-60 urte tartekoak direla da, batetik, eta bestetik, ia guztien ama hizkuntza euskara dela:

Hiztuna	(-)Kmz	Adina	Bizilekua	Euskara	Euskalkia	Eskolatzea
“Yosan” ³⁹	C95	40-60	Baserria	H1 ⁴⁰	Zuberera	Frantsesez
“Ehi” ⁴¹	C95	40-60	Hiria	2H ⁴²	-	Frantsesez
“Iosen”	C95	-30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
“Maiaz”	C95	-30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
“Gorba” ⁴³	C95	-30	Baserria	H2g ⁴⁴	-	Euskaraz
“Alazi”	C95	-30	Hiria	H1	Lapurtera	E+ F

(63) C95 perpausean “sobera” zenbatzailearekin komunztadura gabeko ergatiboak baimendu dituzten hiztunen datuak

- **GUTXI/GUT(T)I/GÜTÜ** (C80, C85, C88, C91, C94):

Gutxi zenbatzailearekin ere komunztadura gabeko adibideak daude subjektu ergatiboekin, subjektu absolutiboekin eta osagarri zuzenekin:

(64) *Haur gutti hil da gisa hortan* (C80, “Belu”, BN., +70)

(65) *Liburu gutti dut baina ideia aunitz* (C91, “Joainh”, Lap., -30)

(66) *Haur güttik ben librik ekhai titzie* (C94, “Pimus”, Zub., 40-60)

Maiz komunztatu ez direnen artean, *gutxi/gut(t)i/gütü* aldaeran izango genituzke. OZ funtzioa beten duen kasuetan, esaldi guztietatik %53,84 agerpenetan ez da komunztadura plurala hautatu. Subjektu funtzioaren kasuan, hemen ere subjektu ergatiboak eta subjektu absolutiboak bakoitza bere aldetik aztertu behar dira, jarrera oso ezberdinak erakuste dituztelako. Hortaz, subjektu absolutiboen kasuan, agerraldien

³⁹ Guztira 6 aldiz sortu ditu komunztadura gabeko esaldiak.

⁴⁰ Lehenengo hizkuntza.

⁴¹ Guztira 4 aldiz sortu ditu komunztadura gabeko esaldiak.

⁴² Bigarren hizkuntza, hau da, helduan ikasia.

⁴³ Guztira 2 aldiz sortu ditu komunztadura gabeko esaldiak.

⁴⁴ Bigarren hizkuntza goiztiarra (De Houwer, 2009); kasu honetan, murgiltze ereduaren ikasia.

%42,71-tan ez da komunztadura plurala eragin. Aldiz, subjektu ergatiboen kasuan aztertu ditugun esaldi guztietan komunztadura plurala aurkitu dugu, hurrengo adibidean bezala.

(64) *Haur güttik ben librik ekhai titzie* (C94, “Pimus”, Zub., 40-60)

Komunztadura pluralik gabeko adibiderik ez dago lagin honetan.

• **ANITZ** (C79, C81, C84-C88, C90-C94, C98):

Anitz zenbatzaileak oso jarrera orekatua erakusten du OZ funtzioa betetzen duenean (ik II. eranskina): %50 esaldietan komunztadura plurala eragin du, eta %50 esaldietan ez du zenbaki-komunztadurarik eragin.

(65) *Ainitz liburu badut* (C90, “Xalai”, BN, 40-60)

Aurreko kasuetan ikusi bezala, hemen ere alde handia aurkitu dugu OZ funtzioa subjektu funtzioarekin erkatu dugunean. Lafittek (1962: orr) *hanitx* beti pluralez komunztatu behar zela esan bazuen ere, gure datuetan *anitz*-ek eraldatzen duen IS-ak subjektu absolutibo gisa agertzen denean, agerraldien %39,6-tan ez du zenbaki-komunztadurarik eragin.

(66) *Aur anitz erori da eskaler oitan* (C79, “Eshen”, Lap., +70)

Alde handia dago subjektu absolutiboak subjektu ergatiboekin erkatzen ditugunean, azken hauen kasuan 2 adibideetan baino ez direlako komunztadura gabeko formak hautatu —hau da, kasu guztien %4,08-an (C93, 2 agerpen YOSAN eta MAILA-renak), besterik ez.

(67) *Aur ainitzek lo egin du emen* (C93, “Ehi”, -, 40-60)

(68) *Haur hanitxek jadanik heben lo egin dizi* (C93, “Yosan”, -, 40-60)

• **GEHIEGI** (C81, C89, C92, C95):

Aurrekoa bezala, *gehiegi* zenbatzailearen erabilera nahiko orekatua dagoela dirudi OZ funtzioa betetzen duenean (ik II. eranskina); honetan ere, %50 esaldietan komunztadura plurala eragin du, eta %50 esaldietan ez. Hona hemen adibide bat zenbatzaile komunztadura gabearekin.

(69) *Sagar geiegi jan dut* (C89, “Lausa”, -, -30)

Beste zenbatzaileekin bezala, hemen ere alde handia aurkitu dugu OZ funtzioa subjektu funtzioarekin alderatu dugunean. Izan ere, subjektu absolutiboekin hiztunek

emandako perpaus guztien %14,28-tan bakarrik baimendu da komuntadura eza (7tik behin), eta subjektu ergatiboarekin behin besterik ez (%11,11):

(70) *Haur gehiegi lerratu da eskaler untan* (C81, “Moba”, BN., 40-60)

(71) *Haur geiegi goxokiak jaten ditu* (C95, “Moba”, BN., 40-60)

• **ASKO** (C79, C86, C87, C90, C91, C93):

Zenbatzaile honekin komuntadura gabeko formak erabiltzen badira ere, ikusi dugu *asko*-ren agerraldi guztietarik bakarrik %18,18-tan ez dela komuntadura plurala aukeratu. Aurreko kasuetan bezala, hemen ere joera ezberdinak aurkitu ditugu funtzioaren arabera, nahiz eta ezberdintasun hauek ez izan aurreko kasuetan bezain nabariak. Zehazkiago, komuntadura eza baimendu da: i) OZ funtzioarekin agerraldien %20-tan (20tik 4tan); ii) subjektu absolutiboekin %21,42 agerraldietan (14tik 3tan), eta iib) subjektu ergatiboekin %10 agerraldietan, hau da, hamar agerraldietatik bakar batean (zehazki, C93 perpausetan, GORBA hiztunaren eskutik).

(72) *Aur asko erori da eskaler untan* (C79, “Moba”, BN, 40-60)

(73) *Liburu asko badut* (C90, “Jabi”, BN, +70)

(74) *Aur askok jadanik emen lo egin du.* (C93, “Gorba”, -, -30)

Bada beste datu interesgarria: *anitz* eta bere aldaeren agerpen guztiei buruz. *Asko*-ren agerpen guztiekin konparatuz gero, bi zenbatzaile hauen artean alde handia dagoela ikusten dugu: 246 *anitz* vs. 64 *asko* aurkitu baititugu laginean. Hipotesi gisa pentsa liteke *asko* erabili dutenek erdialdeko edo Hegoaldeko batuaren eragina dutela, beharbada telebistarena, gehiengo -30 urte tarteko gazteak⁴⁵ izan direlako, eta horietatik askori ez zaie euskalkirik aitorturik. Gainera, zuberotar batek ere ez du *asko* erabili.

	Lapurdi	Behe Nafarroa	Zuberoa	Ezezaguna
+70 urte	-	Jabi (C90)	-	-
40-60 urte	-	Moba (C79), Mimu (C87)	-	-
-30 urte	Iosen ⁴⁶ (2), Panzi ⁴⁷ (5)	Maie (C93)	-	Xaan ⁴⁸ (2), Ehen ⁴⁹ (4), Paba ⁵⁰ (2), Josa (5), Iba ⁵¹ (5), Gorba (5), Mimi (5), Ibai (5)

⁴⁵ Adibidez: C79 esaldian 8 agerraldietatik 7 hiztun gazteri dagozkie.

⁴⁶ Iosen: C90, C93 perpausetan.

⁴⁷ Panzi, Josa, Gorba, Mimi, Ibai: C79, C86, C87, C90, C93 perpausetan.

(75) “*Asko*” zenbatzailea ekoizten duten hiztunen taula

- *Aski*⁵² (C84, C98):

Aski-k, bestetik, agerraldi guztietatik bakarrik %14,56-tan ez du komunztadura plurala eragin. Funtzioaren eragina aztertzeke orduan arazo batekin topo egin dugu: lagin honetan *aski* ez da inoiz OZ funtzioarekin agertzen. Subjektuen kasuan, subjektu absolutiboekin %24,07 agerraldietan baino ez dute komunztadura plurala egin.

(76) *Aski haur erori da hemen* (C84, “Aniz”, BN, +70)

Azkenik, subjektu ergatiboekin, komunztadura gabeko zenbatzaileak oso gutxitan zilegiztatu da: agerraldien %4,08-tan (hau da, 49 agerraldietatik 2-tan C98 perpausekin, lehen aipatutako Yosan eta Ehi hiztunekin).

(77) *Aur askik erran ditu zozokeriak* (C98, “Ehi”, -, 40-60)

- *ZENBAIT* (C83, C97):

Zenbait-i dagokionez, gramatikek (Euskaltzaindia, 1985; Zubiri & Zubiri, 2000) zein E&E-k (2009) aldakortasuna duela adierazi arren, gure corpusean birritan besterik ez du komunztadura eza baimendu (YOSAN-ek eta EHI-k emandako perpausak); beraz, zenbatzaile honen jokabidea kontu handiz begiratzea komeniko litzateke. Hiztunek zenbatzaile honekin komunztadura plurala egiteko joera nabarmena dago.

(78) *Zombait aur jua dire elizarat* (C83, “Joban”, BN, +70)

Bi agerraldi oso gutxi dira honetan inolako orokorpenik eraikitzeke, baina deigarriena da subjektu absolutiboekin beti komunztadura pluralarekin agertzen bada ere (%100, 29tik 29k), ergatiboa denean bi aldiz (29tik) gertatu delako komunztadura:

(79) *Zombait aurrek erosi du paperra* (C97, “Ehi”, -, 40-60)

(80) *Haur zumbaitek iosi dizi pape* (C97, “Yosan”, Z., 40-60)

Dena den, *zenbait* 58 aldiz bakarrik agertu izana (hiztunen beste erdiak *batzuk* erabiltzeko joera erakutsi du) kontuan hartzekoa da, hortaz, ondorio esanguratsuak

⁴⁸ Xaan: C86, C87 perpausetan.

⁴⁹ Ehen: C86, C87, C90, C93 perpausetan

⁵⁰ Paba: C79, C90 perpausetan.

⁵¹ Iba: C79, C87, C90, C93, C94 perpausetan.

⁵² Zalantzak egon badaitezke ere, *aski* gramatiketan zenbatzailetzat jotzen da. Horretaz gain, corpusean aldakortasuna duela ikusi dugu.

lortzeko hiztun gehiago elkarrizketatu beharko liratekeela uste dugu, lagin hau motz geratzen baita. YOSAN eta EHI hiztunak izan dira komunztadura eza eragin duten bakarrak; aman komunean daukaten ezaugarri soziolinguistiko bakarra 40-60 adin-tartekoak direla da, kointzidentzia izan litekeena (hiztun hauei buruzko informazio gehiagorako, ik. goiko (63) taula).

	Funtzioa	KMZ -	KMZ +	KMZ - (%)	% Zenb-aren agerpenetatik KMZ-
Zenbait	Subj ABS (C83)	0 / 29	29 / 29	%0	%3,44
	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG (C97)	2 / 29	27 / 29	%6,89	

(81) “Zenbait” zenbatzailearen komunztadura

- **ORO** (C82, C96):

Arestian argitukoa oroitaraziz, *oro*, *guzi*-ren moduan, guztitasuna (Lafitteren (1962) lanean *totalité*, jatorriz) adierazteko zenbatzailea da, eta ez lausoa, aurrekoak bezala, beraz, kontraste gisa erabiltzea da gure asmoa. Gramatiketan zenbaki komunztadurarekin zein zenbaki komunztadurarik gabe ager daitekeela aipatzen da (Lafitte, 1962: 109-110; Euskaltzaindia, 1985; Zubiri & Zubiri, 2000), baina gure corpusean agerpen bakarra izan duela komunztadurarik gabe: subjektu absolutiboekin komunztadura plurala beti beharrezkoa da (C96, %100), baina subjektu ergatiboen kasuan salbuespen bat aurkitu ditugu: YOSAN hiztuna izan da komunztadura eragin ez duen bakarra, 40-60 urte tarteko zuberotar baserritarra, euskara H1 duena. Laginean ez dugu osagarri zuzenaren funtzioarekin aurkitu.

(82) *Haur oek ogi jan dizi* (C96, “Yosan”, Z., 40-60)

	Funtzioa	KMZ -	KMZ +	KMZ - (%)	% Zenb-aren agerpenetatik KMZ-
Oro	Subj ABS (C82)	0 / 10	10 / 10	%0	%5
	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG (C96)	1 / 10	9 / 10	%10	

(83) “Oro” zenbatzailearen komunztadura

Hala ere, *oro* 20 aldiz bakarrik agertzen denez ezer ondorioztatu baino lehen zenbatzaile honen jarrera era sakonago batean aztertu beharko litzateke hiztun gehiago elkarrizketatuz.

- **GUZI/GÜZI (C82, C96) eta BATZUK (C83, C97)**

Guzi eta *batzuk* beti agertzen dira komunztadura pluralarekin. Beraz, laginaren azterketak egiaztatzen du gramatiketan bi elementu hauei buruz ematen den deskribapena. Lagin honetan aurkitu ditugun emaitzak, beraz, ez dira harritzekoak.

(84) *Laburbilduz: komunztadura zenbatzailearen arabera*

·Laburbilduz:

i) Zenbatzaile ahul lausoen aukera daukate komunztadura plurala eragiteko zein zenbaki-komunztadurarik ez eragiteko. Hala ere, laginaren azterketak argi utzi du zenbatzaileen artean alde handia dagoela, eta zenbatzaile batzuk beste zenbatzailek baino gehiagotan baimentzen dutela komunztadura falta. Bestela esanda: zenbatzaileak eragina du komunztaduran.

ii) Komunztadura plurala gutxien eragiten duen zenbatzailea *apur* da. OZ funtzioarekin, beti komunztadura gabe agertzen da (%100); subjektu absolutiboekin %72,72-ko kasuetan, eta subjektu ergatibo gisa %33,33-ko kasuetan bakarrik baimendu dute komunztadura falta.

iii) Coyosek (1999) zubererako eta E&E-k (2009) Trantsizio eta Ekialdeko sistemetarako subjektu ergatiboek beti komunztadura plurala eskatzen dutela esaten bada ere, kasu gutxi batzuetan komunztadura falta baimendu da (17 agerraldietan 343tik). Gorago esan bezala, lagina txikia da, eta edozein aldaketa txiki eragin handia du portzentaietan. Etorkizunean lan gehiago egin beharko da auzi hauek argitzeko.

iv) Komunztadura eza gutxien baimendu duten zenbatzaileak *oro* eta *zenbait dira*. Ororen kasuan emaitzak horrela laburbil daitezke: pluralik gabeko hautua subjektu ergatiboekin % 4,08-ko kasuetan bakarrik egin da. *Zenbaiten* kasuan ere, subjektu ergatiboekin %6,89-ko kasuetan bakarrik aurkitu dugu. Aurrekoetan bezala, datuak tentuz hartu behar dira gure laginean *oro* 20 aldiz bakarrik agertzen delako, eta *zenbait* 29 aldiz.

v) Bestela, *guzti* eta *batzuk* beti agertzen dira komunztadura pluralarekin, gramatiketan deskribatu bezala.

Zenbatzaileei buruzko datu guzti hauek XX eranskinean bildu ditugu.

3. LABURPENA ETA ONDORIO NAGUSIAK

Euskarak badu inguruko hizkuntzek ez duten ezaugarri bat zenbaki komunztadurarekin lotuta dagoena: zenbatzaile ahul lausoek aukeran dute komunztadura plurala eragitea zein zenbaki komunztadurarik ez eragitea. Euskarak duen ezaugarri hau ez da inguruko hizkuntzetan aurkitzen. Alde horretatik, interesgarria da aztertzea euskarak berezkoa duen ezaugarri hau nola mantendu egin euskararen lurraldean, eta zein den sistema honen eboluzioa ikuspuntu soziolinguistikotik, bereziki gure hizkuntzak duen egoera ahula kontuan hartuta. Lan honetan ezaugarri gramatikal hau aztertu dugu. Lanaren lehen zatian fenomenoaren inguruko azalpen nagusiak aurkeztu ditugu, E&Eren lanari arreta berezia jarritz. Honen ondoren, lanaren bigarren atalean, *Norantz* proiektuan oinarrituz fenomeno gaur egungo Iparraldeko hizkeretan nola gauzatzen den aztertu dugu. *Norantz*-eko laginaren azterketak aukera eman digu fenomeno honetan parte hartzen duten zenbatzaile nagusien jarrerak aztertzeko, orain arte egin gabe zegoen lana. Azterketa honek emaitza interesgarriak izan ditu:

i) Gure analisiak argi utzi du zenbatzaileen artean alde handia dagoela, eta zenbatzaile batzuk joera handiagoa dutela beste batzuk baino komunztadura falta baimentzeko. Bestela esanda: zenbatzaile bakoitzaren izaerak eragina du zenbaki-komunztaduran. Guk dakigularik, hau da lehendabiziko aldiz euskal hizkuntzalaritzan non ondorio honetara heltzen garen. Komunztadura plurala gutxien eragiten duen zenbatzailea *apur* da. Komunztadura eza gutxien baimendu duten zenbatzaileak *oro*⁵³ eta *zenbait dira*.

ii) E&E-k euskararen barneko aldakortasuna azaltzeko zenbatzaile sintagmaren funtzioari arreta jarri zioten: proposatu zuten hiru sistemek (Mendebaldekoak, Trantsiziokoak eta Zuberoakoak) zenbaki-komunztadura falta zilegiztatzen dute osagarri zuzen eta subjektu absolutiboekin, baina aldakortasuna dagoela zehar osagarriekin (Zuberoako sisteman ez omen da posible) eta subjektu ergatiboarekin (Trantsizioko eta Zuberoako sistemetan ez omen da onartzen). Gure ikerketak argi utzi du IS-aren funtzioaren garrantzia: laginean osagarri zuzena da komunztadura gabeko formak gehien baimentzen dituen, bere atzetik subjektu absolutiboa eta bere atzetik

⁵³ Nahiz eta gramatikek esan aldakortasuna erakusten duela, izatez, zenbatzaile orokorra da, ez lausoa. Hala ere, aldakortasuna erakutsi duenez, eta pentsatuz lausoek duten propietate berdina duela, aztertu dugu.

subjektu ergatiboa. Alde honetatik gure datuek ez dute baieztatzen E&E-k emandako karakterizazioa: egile hauen kontra, kasu gutxi badira ere, subjektu ergatiboekin ere forma komunztadura gabeko formak aurkitu ditugu, Iparraldeko lurralde osoan. Hau zilegiztatzan duten hiztunen ezaugarriak aztertu ondoren, aipagarria da estrategia hau ez dela + 70 urteko belaunaldian gertatzen.

iii) Komunztadura gabeko formak gehien onartzen dituzten hiztunen ezaugarriak aztertzen baditugu ikusten duguna da +70 urte-tartekoak, zuberotarrak, baserri eremukoak, eta murgiltze eremuan eskolatu ez direnak direla. Ezaugarri linguistikoei dagokienez, komunztadura falta gehien onartzen duten zenbatzaileak *apur*, *guti* eta *sobera* dira, eta funtzioen artean, osagarri zuzena da komunztadura falta gehien baimentzen duen funtzioa (eta bere atzetik subjektu absolutiboa eta subjektu ergatiboa, hurrenez-hurren).

iv) Bukatzeko, lanean hainbat aldiz aipatu dugun moduan, kontuan hartu behar da lagina txikia dela, eta edozein aldaketa txikik eragin handia izan dezakeela portzentaietan. Ondorioztatu ditugun orokorpenak, beraz, tentuz hartu behar dira. Gogoan izan, gainera, hiztun batek estrategia bat edo bestea hautatzea bere erantzuna emateko orduan, ez duela esan nahi beste estrategia ezin erabiltzea. Hala ere, burututako azterketa honek joera nahiko garbiak azalerazi egin ditu, eta fenomenoak hobeto deskribatzen eta hobeto ulertzen ahalbidetuko duela uste dugu. Alde horretatik espero dugu lana baliogarria izatea gai honetan interesaturik dauden ikerlariarentzat.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Almeida, M. (2003). *Sociolingüística* (2. arg.). Materiales didácticos universitarios. Filología, 2. La Laguna: Universidad de La Laguna.
- Camino Lertxundi, I. (2016). *Amikuze eskualdeko (h)eskuara*. Mendaur, 11. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Cantos Gómez, P. (2012). *Statistical methods in language and linguistic research*. Oakville, CT: Equinox Pub.
- Costas González, X. H. (2003). “As outras linguas de Francia: marco legal e situación lingüística” in Constenla Bergueiro, G., & Luna Alonso, A. (arg.). *Linguas sen estado e planificación lingüística* (V. i. bol. /, Monografías da Universidade de Vigo. Humanidades e Ciencias Xuridico-Sociais, 57). Vigo: Universidade de Vigo.

- Coyos, J.-B. (1999). *Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité*. Paris: L'Harmattan.
- De Houwer, A. (2009). *Bilingual First Language Acquisition*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2008). "Izen eta gertakarien gaineko kuantifikazioa euskaraz". In Artiagoitia, X. eta Lakarra, J. (arg.) *Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez*. ASJUren gehigarriak 51, 259-286. Bilbao: UPV/EHU.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. (2009). "Zenbatzaileak komunztatzen ez direnean: Hiru sistema". *Lapurdum*, 13: 127-144.
- Etxeberria, U. (2012). "Quantification in Basque". In Keenan, E. eta Paperno, D. (arg.), *Handbook of Quantifiers in Natural Language*, 83-164. Studies in Linguistics and Philosophy. Berlin: Springer.
- Etxeberria, U. & Etxepare, R. 2012. "Number agreement in Basque: Counting vs. Measuring". In *Noun Phrases and Nominalizations in Basque*, Etxeberria, U., Etxepare, R. eta Uribe-Etxebarria, M. (arg.), 149-178. Amsterdam: John Benjamins.
- Etxepare, R. (2000). "Asko-ren zenbait alderdi". *Lapurdum* 5: 99-111.
- Euskaltzaindia. (1985). *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Foru Gobernua.
- Eusko Jaurlaritza. *Euskararen Adierazle Sistema* (EAS). <http://www.euskadi.eus/eusadierazle/temasVI.apl?idioma=e> [2019/3/29]
- Eusko Jaurlaritza (2017). VI. *Inkesta Soziolinguistikoa. Iparraldea. 2016*. https://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Aktualitateak/015_VI_ENQUETE_PBN_eus.pdf [2019/3/27]
- Lafitte, P. (1944) [1962]. *Grammaire basque (navarro-labourdin litteraire)*, 2. arg. Donostia: Elkar.
- Meyerhoff, M. (2006). *Introducing sociolinguistics*. London: Routledge.
- Oyharçabal, B., Salaberria, J. eta Epelde, I. (2011). "Norantz datu-basea: Aurkezpena eta aditz komunztaturako datuak". In Epelde, I. (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. ASJUren gehigarriak LXIX, 1-36. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Oyharçabal, B., Salaberria, J. eta Epelde, I. (2012). "La base de données Norantz: vers un observatoire des parlers basques d'Aquitaine". *Lapurdum*, 16: 27-67.
- Txillardegui. (1978). *Euskal gramatika*. Donostia: Ediciones Vascas.
- Zubiri, I. (1994). *Gramática didáctica del euskera* (4. arg.). Bilbo: Didaktiker.
- Zubiri, I. & Zubiri, E. (2000). *Euskal gramatika osoa* (2. arg.). Bilbo: Didaktiker.

I. ERANSKINA

Kodea	Zenbatzailea eta perpausak	Funtzioa	-Kmz ⁵⁴	(%)	+Kmz	(%)
C79	1) <i>Beaucoup d'enfats sont tombés dans ces escaliers</i> · Aur <u>añitz</u> erori dire eskelleretan (ESHEN) · Haur <u>ainitz</u> erori da eskaler orietan (JABI)	Subj. ABS	8	%16,66	40	%83,33
	· Aur <u>asko</u> erori da eskaler untan (MOBA) · Aur <u>asko</u> erori dira eskaller onetan (PANZI)		2	%25	6	%75
C80	2) <i>Peau d'enfants sont morts de cette manière</i> · <u>Gutti</u> haur il da holako maneran (XLEAHA) · Manera ortan aur <u>guti</u> il die.	Subj. ABS	15	%25,86	37	%63,79
	· Haur <u>aphür</u> hiltzü manea hortaa (REES) · Haur <u>aphür</u> hil dia gisa hortaz (NAMAU)		3	%50	3	%50
C81	3) <i>Trop d'enfants ont glissé dans ces escaliers</i> · <u>Sobera</u> haur lerratu da eskaler ortan (JABI) · Haur <u>sobea</u> lerratü dia eskale hoietan (PIEPA)	Subj. ABS	10	%17,54	47	%82,45
	· Aur <u>geiegi</u> lerratu dire eskallera oitan (RAZI) · Haur <u>geiegi</u> lerratu da eskaler untan (MOBA)		1	%14,28	6	%85,71
C82	4) <i>Tous les enfants sont tombés par terre</i> · Haurrak <u>oro</u> ioi dia lürrilat (PIEPA) -	Subj. ABS	0	%0	10	%100
	· Aur <u>guziek</u> ⁵⁵ lurreat erori die (PIEGE) -		0	%0	49	%100
C83	5) <i>Quelques enfants sont allés à l'église</i> · Haur <u>zumait</u> elizalat juañ dira (ADBAR) -	Subj. ABS	0	%0	29	%100
	· Aur <u>batzuk</u> ⁵⁶ elizarat joan die (RAZI) -		0	%0	29	%100
C84	6) <i>Suffisamment d'enfats sont déjà tombés ici</i> · <u>Aski</u> aur erori da jadanik emen (NAZI) · <u>Aski</u> aur emen erori dira (AKAN)	Subj. ABS	13	%24,07	41	%75,92

⁵⁴ Esaldietan ageri ez diren zenbatzaile bitxiak eta bakanak (*paketa, biziki, ausarki...*) ez ditugu kontuan hartu, oso gutxitan agertzen zirelako (eta beraz, batez bestek egiteko ez zirela fidagarriak) edo benetako zenbatzaileak ez direlako (hala nola *biziki*-ren kasuan).

⁵⁵ *Guzi*-k ez dauka aldakortasunik, ez da perpaus honen berezitasuna.

⁵⁶ *Batzuk*-ek ez dauka aldakortasunik, ez da perpaus honen berezitasuna.

C85	7) Il y a peu d'étudiants dans la rue ·Arrüan etüdian <u>aphür</u> düzü (GERBAR)	Subj. ABS	5	%100	0	%0
	- ·Ikasle <u>guti</u> da karrikan (XALAI) ·Ikasle <u>gutti</u> badira karrikan (KADO)		27	%52,94	24	%47,05
C86	8) Il y a beaucoup de places vides dans ce train ·Trein untan <u>anitz</u> toki uts bada (MAIHE) ·Toki <u>anitz</u> badie libro trein untan (JEDON)	Subj. ABS	30	%57,69	22	%42,3
	·Toki libre <u>asko</u> dago tren onetan (XAAN) ·Toki libre <u>asko</u> badira trein ortan (JOSA)		0	%0	6	%100
C87	9) J'ai vu beaucoup d'enfants tomber par terre · <u>Anitz</u> aur ikusi dut lurrerat erortzen (ANHAZ) ·Ikusi ditut aur <u>ainitz</u> lurrean erortzen (LAUSA)	OZ. ABS	19	%41,30	27	%58,69
	·Ikusi dut aur <u>asko</u> lurrean erori (PANZI) ·Aur <u>asko</u> ikusi ditut lurrerat erortzen (XAAN)		2	%22,22	7	%77,77
C88	10) J'ai acheté peu de livres 'Liburu gutxi erosi dut/ditut' ·Liburu <u>gutti</u> erosi dut (BELU) ·Liburu <u>gutti</u> erosi ditut (MAIHE)	OZ. ABS	26	%49,05	27	%50,94
	·Liburu <u>aphür</u> iosi düit (PIEPA) -		5	%100	0	%0
C89	11) J'ai mangé trop de pommes · <u>Sobera</u> saar jan dut (XALEZ) · <u>Sobera</u> saar jan ditut (JEDON)	OZ. ABS	36	%72	14	%28
	·Sagar <u>geiegi</u> jan dut (MOBA) ·Sagar <u>geiegi</u> jan ditut (IBA)		5	%55,5	4	%44,44
C90	12) J'ai beaucoup de livres ·Badüt libürü <u>hanitz</u> (ADBAR) ·Laiburü <u>ainitz</u> baditut (JEDON)	OZ. ABS	28	%65,11	15	%34,88
	·Liburu <u>asko</u> dut (GORB) ·Liburu <u>asko</u> ditut (IOSEN)		2	%20	8	%80
	· Beste batzuk : · <u>Frango</u> liburu baditut (GRAAR) · <u>Biziki</u> liburu ditut (BERLA) ·Libre <u>paketa</u> badit (MAILA)					
C91	13) J'ai peu de livres, mais beaucoup d'idées ·Liburu <u>guti</u> dut baina idera ainitz (LOUSEN) ·Liburu <u>gutti</u> ditut bainan idea hanitz (BELU)	OZ. ABS	28	%56	22	%44
	·Libüü <u>aphür</u> ditpai bena ideia hanitz (GERBAR) -		6	%100	0	%0
C92	14) Beñat a trop de livres, mais pas assez d'amis ·Beñatek <u>sobera</u> liburu badu, banan ez aski adiskide (ANIZ)		24	%50	24	%50

	·Beñatek <u>sobera</u> liburu ditu, bañan ez aski lagun (ALAZI)	OZ. ABS				
	·Beñat liburu <u>geiegi</u> du bainan lagun guttiegi (LAUSA)		3	%50	3	%50
	·Beñatek liburu <u>geiegi</u> ditu bainan ez aski lagun (ABE)					
C93	15) <i>Beaucoup d'enfants ont déjà dormi ici</i> ·Aur <u>anitzek</u> lo egin du emen (EHI) · <u>Ainitz</u> aurrek eben lo egin dute (BEDO)	Subj. ERG	2 ⁵⁷	%4,08	47	%95,91
	· Aur <u>askok</u> jadanik emen lo egin du (GORBA) ·Aur <u>askok</u> lo egin dute emen jada (IOSEN)		1	%10	9	%90
	·Beste batzuk: ·Haur paketek hemen lo egin dizie (MAILA) · <u>Biziki</u> haurrek lo egin dute deia hemen (BERLA)			-		
C94	16) <i>Peau d'enfants ont apporté leur(s) livre(s)</i> ·Haur <u>aphürrek</u> ⁵⁸ ekharri titzi ben libriak (YOSAN) ·Haur <u>aphürrek</u> dizie ekharri been lübüik (REES)	Subj. ERG	2 ⁵⁹	%33,33	4	%66,66
	·Haur <u>gütтик</u> ben librik ekhai titzie (PIMUS)		0	%0	52	%100
C95	17) <i>Trop d'enfants mangent des bonbons</i> ·Aur <u>soberak</u> goxokiak jaten ditu (MAIAZ) ·Aur <u>soberak</u> goxokiak jaten dituzte (MAIE)	Subj. ERG	6 ⁶⁰	%12	44	%88
	·Aur <u>geiegik</u> goxokiak jateituzte (RAZI)		1	%11,11	8	%88,88
C96	18) <i>Tous les enfants ont mangé du pain</i> ⁶¹ ·Haur <u>oek</u> ogi jan dizi (YOSAN)	Subj.	0	%0	49	%100

⁵⁷ Komunztadura egin ez duten hiztunak (lehenengo biak *anitz* eta hirugarrena *asko*-rekin): YOSAN: 40-60 urte, baserritarra, euskara H1, zuberotarra, eskolatzea frantsesez; EHI: 40-60 urte, hiritarra, euskara helduan ikasia, eskolatzea frantsesez; GORBA: -30 urte, baserritarra, euskara murgiltze eremuan ikasia.

⁵⁸ *Apur*-ekin komunztadurarik egin ez duten bi hiztunak zuberotarrak dira.

⁵⁹ Komunztadura hautatu ez duten hiztunak *apur* zenbatzailearekin: YOSAN; eta MAILA: -30 urte, baserritarra, euskara eta frantsesa H1, zuberotarra, eskolatzea frantsesez.

⁶⁰ Komunztadura plurala baimendu ez duten hiztunak *sobera* zenbatzailearekin: YOSAN; EHI; GORBA; MOBA: 40-60 urte, hiritar aspalditik, euskara H1, behe-nafarra, eskolatzea frantsesez; IOSEN: -30 urte, hirixkakoa, euskara H1, lapurtarra, eskolatzea murgiltze sisteman; MAIAZ: -30 urte, hirixkakoa, euskara H1, lapurtarra, eskolatzea murgiltze sisteman; ALAZI: -30 urte, hiritarra, euskara H1, lapurtarra, eskolatzea euskaraz eta frantsesez.

⁶¹ Euskaltzaindiak (1985) dio *guzti* edo *guzi* pluralean komunztatzen dela baldin eta IS zenbakarria den, beraz hemen ez genuen espero komunztadurarik gabeko estrategia posiblea izatea. Alde horretatik, emaitza bitxia da.

	·Hurrek <u>oek</u> jan dizie ogi (REES)	ERG				
	·Hurrek <u>guziek</u> jan dute ogia (BELU)		1 ⁶²	%10	9	%90
	-					
C97	19) Quelques enfants ont acheté du papier ⁶³ ·Zombait aurrek erosi du paperra (EHI) ·Aur <u>zombait</u> ek papera erosi dute (MAIHE)	Subj. ERG	2 ⁶⁴	%6,8	27	%93,1
	·Aur <u>batzuek</u> erosi ute papera (MADON)		0	%0	29	%100
	-					
C98	20) Suffisamment d'enfants ont dit des bêtises ⁶⁵ ·Aur <u>askik</u> erran ditu zozokeriak (EHI) · <u>Aski</u> hurrek erran die astokeiak (PIEPA) · Beste batzuk: · <u>Naiko</u> aurrek zozokeriak erran dituzte (GORBA)	Subj. ERG	2 ⁶⁶	%4,08	47	%95,91
	Guztira: 1024		315	%30,76	709 ⁶⁷	%69,23

(1) Norantz-eko perpausak, zenbait itzulpen eta (+/-) komuntadurari buruzko ehunekoak

⁶² Oro-rekin Komuntadura egin ez duen hiztuna YOSAN da.

⁶³ Komuntadura singularra erabili dutenek *zenbait* erabili dute; *batzuk*-ek ez dauka aldakortasunik.

⁶⁴ Euskaltzaindiak (1985), Zubiri & Zubirik (2000) eta E&E-k (2009) esaten dute *zenbait*-ek komuntadura pluralarekin zein komuntadurarik gabe ager daitekeela. Corpus honetan bi kasuetan bakarrik ez da aukeratu komuntadura plurala (gainera bi agerraldiak subjektu ergatiboarekin).

⁶⁴ *Zenbait*-ekin komuntadura egin ez duten hiztunak: YOSAN eta EHI.

⁶⁵ Hiztun batek 'izan + ABS.' Baliatu du komuntadura singularrarekin, baina ez dugu kontuan hartu ergatiboaren azterketa ez oztopatzeko.

⁶⁶ *Aski*-rekin komuntadura egin ez duten hiztunak: YOSAN eta EHI.

⁶⁷ Zenbaki honetarako *batzuk* eta *guzi* agertzen diren perpausak ez dira kontuan hartu, zenbatzaileok aldakortasunik ez dutelako.

**II. ERANSKINA: Zenbatzaileen eta funtzioaren arteko elkar-eragina
komunztaduran (-/+)⁶⁸**

	Funtzioa	(-)KMZ	(+)KMZ	(-) KMZ (%)	% Zenb-aren agerpenetatik KMZ-
Anitz	Subj ABS	40 / 101	61 / 101	%39,60	%36,58
C79, C81, C84, C85, C86, C87, C88, C90, C91, C92, C93, C94, C98	OZ ABS	48 / 96	48 / 96	%50,00	
	*Subj ERG ⁶⁹	2 / 49	47 / 49	%4,08	
Asko	Subj ABS	3 / 14	11 / 14	%21,42	%18,18
C79, C86, C87, C90, C91, C93, C94	OZ ABS	4 / 20	16 / 20	%20,00	
	*Subj ERG	1 / 10	9 / 10	%10,00	
Guti	Subj ABS	44 / 103	59 / 103	%42,71	%38,61
C80, C85, C88, C91, C94	OZ ABS	56 / 104	48 / 104	%53,84	
	*Subj ERG	0 / 52	52 / 52	%0	
Apur	Subj ABS	8 / 11	3 / 11	%72,72	%75
C80, C85, C88, C91, C94	OZ ABS	11 / 11	0 / 11	%100	
	*Subj ERG	2 / 6	4 / 6	%33,33	
Sobera	Subj ABS	10 / 50	40 / 50	%20	%38,88
C81, C89, C92, C95	OZ ABS	61 / 97	36 / 97	%62,88	
	*Subj ERG	6 / 50	44 / 50	%11,76	
Gehiegi	Subj ABS	1 / 7	6 / 7	%14,28	%31,25
C81, C89, C92, C95	OZ ABS	8 / 16	8 / 16	%50	
	*Subj ERG	1 / 9	8 / 9	%11'11	
Aski	Subj ABS	13 / 54	41 / 54	%24,07	%14,56
C84, C98	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	2 / 49	47 / 49	%4,08	
Oro	Subj ABS	0 / 10	10 / 10	%0	%5
C82, C96	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	1 / 10	9 / 10	%10	
Guzi	Subj ABS	0 / 49	49 / 49	%0	%0
C82, C96	OZ ABS	-	-	-	
	*Subj ERG	0 / 49	49 / 49	%0	
Batzuk	Subj ABS	0 / 29	29 / 29	%0	%0
C83, C97	OZ ABS	-	-	-	

⁶⁸ Kolore horiz markatu da agerpenetatik %50tan edo gehiago egiten dituzten kasuak; urdinez %30-%50 tarteko agerpenak; berdez %10 baino gehiago eta %30 baino gutxiagokoak; laranja %10 edo gutxieneko agerpenak; eta %0-koak grisez.

⁶⁹ Subjektu ergatiboko funtzioak izartxo (*) batez daude markatuta, Etxeberria & Etxepareren (2009) hiru sistemen arabera, komunztadura plurala egitea derrigorrezko izan beharko litzatekeelako, nahiz eta gure corpusean hori betetzen ez duten zenbait adibide egon.

	*Subj ERG	0 / 29	29 / 29	%0	
Zenbait	Subj ABS	0 / 29	29 / 29	%0	
	OZ ABS	-	-	-	
<i>C83, C97</i>	*Subj ERG	2 / 29	27 / 29	%6,89	%3,44

(2) Zenbatzailearen araberako komuntadura (-/+)

III. ERANSKINA: Funtzioaren araberako zenbatzaileen elkar-eragina komunztaduran (-/+)⁷⁰

	Zenb	(-)KMZ	(+)KMZ	(-)KMZ (%)	IS funtzioaren agerpenetatik KMZ – (%)
Subj (ABS)	<i>anitz</i>	40 / 101	61 / 101	%39,6	%34,70 (oro, guzi, batzuk, zenbait kontuan hartu barik)
C79, C80, C81, C82, C83, C84, C85, C86	<i>asko</i>	3 / 14	11 / 14	%21,42	
	<i>guti</i>	44 / 103	59 / 103	%42,71	
	<i>apur</i>	8 / 11	3 / 11	%72,72	
	<i>sobera</i>	10 / 50	40 / 50	%20	
	<i>gehiegi</i>	1 / 7	6 / 7	%14,28	
	<i>aski</i>	13 / 54	41 / 54	%24,07	
	<i>oro</i>	0 / 10	10 / 10	%0	%25,82 (Orotara oro, guzi, batzuk, zenbait kontuan hartuta)
	<i>guzi</i>	0 / 49	49 / 49	%0	
	<i>batzuk</i>	0 / 29	29 / 29	%0	
	<i>zenbait</i>	0 / 29	29 / 29	%0	
OZ (ABS)⁷¹	<i>anitz</i>	48 / 96	48 / 96	%50	%54,65
C87, C88, C89, C90, C91	<i>asko</i>	4 / 20	16 / 20	%20	
	<i>guti</i>	56 / 104	48 / 104	%53,84	
	<i>apur</i>	11 / 11	0 / 11	%100	
	<i>sobera</i>	61 / 97	36 / 97	%62,88	
	<i>gehiegi</i>	8 / 16	8 / 16	%50	
*Subj ERG	<i>anitz</i>	2 / 49	47 / 49	%4,08	%4,95
C92, C93, C94, C95, C96, C98	<i>asko</i>	1 / 10	9 / 10	%10	
	<i>guti</i>	0 / 52	52 / 52	%0	
	<i>apur</i>	2 / 6	4 / 6	%33,33	
	<i>sobera</i>	6 / 50	44 / 50	%11,76	
	<i>gehiegi</i>	1 / 9	8 / 9	%11,11	
	<i>aski</i>	2 / 49	47 / 49	%4,08	
	<i>oro</i>	1 / 10	9 / 10	%10	
	<i>guzi</i>	0 / 49	49 / 49	%0	
	<i>batzuk</i>	0 / 29	29 / 29	%0	
	<i>zenbait</i>	2 / 29	27 / 29	%6,89	

(3) IS funtzioaren araberako komunztadura (-/+)

⁷⁰ Kolore horiz markatu da zutabearen goiko partean aipatutako ezaugarria agerpenetatik %50-edo gehiagotan bete denean; urdinez %30-%50 tarteko agerpenak; berdez %10 baino gehiago eta %30 baino gutxiagokoak; laranja %10 edo gutxiagotan bete denean; eta %0-koak, ezaugarria inoiz bete ez denean, grisez.

⁷¹ Corpus honetan *aski*, *guzi*, *oro*, *zenbait* eta *batzuk* ez dira inoiz objektu zuzena modifikatzen agertzen.